

ALEMANIA: Migrazio politika berri
baten beharra eta muturreko
eskuineko taldeen goraldia > **4**

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Otegi eta Iglesias lotzen
ditu(zt)en haria(k) **RAMON SOLA > 11**

2014ko abenduaren 13a | VIII. urtea • 395. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BIRRAMATXI-BIRRAITATXIEN BIZITZAK EZAGUT DITZATEN

LABRITEK ONDARE EZ MATERIALA BILDU, AZTERTU ETA HEDATZEN DU, ETORKIZUNEAN GAZTEEK BEREN BIRRAMATXI
ETA BIRRAITATXIEN JAIK, MUSIKAK, LANBIDEAK, IPUINAK... FINEAN, BIZITZA, EZAGUT DEZATEN. > **12** Jon URBE | ARGAZKI PRESS



4

Immigrazioaren eztabaida gori-gori Alemanian 04

Itsasoak irentsitako ametsak 07
e.lkarrizketa: Jehad K. Suleiman
Rashid 08

Labrit ondarea, gure aurrekoen
bizitzak ezagutzeko aukera 12



8



19

Elikagai ekologikoak
kontsumitzeko 9 arrazoi on 16

e.lkarrizketa: Idoia Etxeberria 19

MunduKOloreak mapa 24

In fraganti: Eider Eibar 26

Aurreneko Iraunkortasunaren
Eroski saria 28



Mañak

24



27



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Pentsaren etorkizuna eta eragiteko gaitasuna
10 **Ander Gortazar Balerdi:** Kursaal Martutene San Sebastián
11 **Ramon Sola:** Otegi eta Iglesias lotzen ditu(zt)en haria(k)
15 **Koldo Sagasti:** Super Ibrahim
17 **Amaia Agirre:** Usaimena
18 **Ainara Azpiazu «Axi»**
22 **Arantxa Urbe:** Hezkuntza unibertsala, beteko ez den helburua
23 **Garazi Goia:** Distira
31 **Edurne Larraza Mendiluze:** Informatikaren irakaskuntza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA
SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

KULTURAREN, HEZKUNTZAREN, HIZKUNTZAREN
ETA KONTSUMOAREN ARLOETAN

{ datorrena } Iñaki Soto

Prentsaren etorkizuna eta eragiteko gaitasuna

Aste honetan mundu mailako prentsan garrantzi handia duten zenbait berri izan dira. Kazetaria ez dela sekula notizia izan behar esan ohi da, baina sektorearen egoera kritikoa eta garrantzi estrategikoa kontuan hartuta, azkenaldian kazetaritza bera objektu nagusi duen metakazetaritza areagotu egin da. Alegia, kazetariez eta kazetaritzaz mintzo den kazetaritza gero eta ohikoagoa da.

Sektorean gertatu direnen artean berririk garrantzitsuena, zalantzarik gabe, "Politico" komunikabide estatubatuarrek Europara eman duen saltoa da. "Politico" Washingtonen sortutako agerkaria da, nagusiki Internet bidez zabaltzen dena, baina AEBetako Kongresua biltzen denean paperean edizio berezia ateratzen duen agerkaria da, hain zuzen ere. Bere *target*-a eliteak dira, AEBetako politikan eta ekonomian eragin handia duten pertsonak. Sortu zen unetik bertatik, 2007an, maila handiko lantalde txikiarekin komunikabide handien hegemonia zaltzan jarri du.

Iragan den asteazkenean, Bruselan, 300 pertsona garrantzitsuren aurrean, Robert Allbritonek, agerkari horretako buruetako batek, "Politico" agerkariaren europar edizioaren aurkezpena egin zuen. Horretarako, estatubatuarrek Axel Springer komunikazio alorreko enpresari alemaniarrekin asoziatu dira –"Die Welt"-en argitaratzailea da, besteak beste–. Aldi berean, Europar Batasunari buruzko berriemaile nagusia den "European Voice" komunikabidea erosi dute. Editore nagusia Matthew Kaminski izango da, "Wall Street Journal"-eko zuzendaritzako kide izandakoa. Europako "Politico"-k Berlinen izango du bere egoitza nagusia, baina korrespontsalak europar hiriburu nagusietan izango dira. Jakina, Bruselan indar handia egingo dute, baita Parisen ere.

Udaberrian abiaraziko da Politico.eu eta hasiera batean 30 langilek osatuko badute ere, beren helburua lehenbait lehen lantaldea bikoiztu eta 70 langilera heltzea da. Ohiko egunkariekin konparatuz, oso lantalde txikia da, talentua hobetsiko duena eta oso dinamikoa, egoitza handirik behar ez duena, logistikan eta distribuzioan gutxi gastatuko duena eta eragina bestelako ekimenekin bilatuko duena. Marka indartsua da, eta, hortik abiatuta, eragina

bilatuko dute. Hein batean, *lobby* lana egiteko baliagarri izango den komunikabide eredua izango da. *Agenda-setting* delakoan indar handia egingo dute, alegia, gero politikaren eta ekonomiaren arloetan zentralak izango diren gaiak eta hauei buruzko ikuspegiak aurreikusten eta markatzen ahaleginduko dira. Asko laburbilduz, gehiegi akaso, beren ildo editorialak neoliberalismoa eta atlantismoa sustatuko ditu, Washington-Berlin ardatza indartuz, Londresko City-an eskala eginda.

Egunkariak eta oro har prentsa idatzia masa-komunikabide izaera galtzen ari dira. Era batean edo bestean, eliteei zuzentzen zaizkie. Besteak beste, gaur egun irakurtzeko ohitura duten pertsonak eta maila honetako informazioa kontsumitzen duten pertsonak eliteak direlako. Askotan aipatzen da globalizazioa, are gehiago bizitzen ari garen krisi latza, gizartean sortzen ari den dualizazio-soziala, non gizartearen poloak gero eta aldenutuago dauden, non klaseen arteko amildegia gero eta sakonagoa den. Amildegia hori, ordea, ez da soilik ekonomikoa izango. Kulturala ere izango da.

Noizbait azaldu dudanez, gure kasuan ere, egunkariaren eta taldea osatzen dugun enpresen sostengu nagusi diren harpide eta erosleak eliteak dira. Ezkertiarrek garen aldetik, "elite" hitzak fama txarra du, baina gure kasuan termino horrek adiera jakin bat du: ez dio erreparatzen aberastasunari, ez behintzat dirutan neurtzen den horri, baizik eta eragiteko pertsona horiek duten gaitasunari. Hartara, gure komunikabideen, gure baliabideen kasuan, elite horiek euren komunitatean eragina duten pertsonak dira: irakasleak, delegatu sindikalak, ikasleak, boluntarioak, zinegotzi eta kargu publikoak...

"Euro-Politico"-ren sorreraz aparte, "The Economist"-eko zuzendariak, John Micklethwaitek, kargua utzi du Bloomberg-era joateko eta "The Guardian"-eko Alan Rusbridgerrek ere zuzendari izateari utziko dio, hoguei urte eta gero, egunkaria finantzatzen duen fundazioaren arduratzaile gisa.

Une interesgarria da gure sektorean. Mugimendu hauek komunikabideen eta, zehatzago, egunkariaren etorkizuna iradokitzen dute. Beren dimentsioa globala izan arren, edo hain zuzen ere globala delako, tentuz jarraitu beharreko mugimenduak dira, baita guretzat ere. •

Gure komunikabideen kasuan, eliteak euren komunitatean eragiteko gaitasuna duten pertsonak dira

ALEMANIA ETA ETORKINAK

Migrazio politika berri baten beharra eta muturreko eskuineko taldeen goraldia

 JENDARTEA / Ingo Niebel

Alemania immigrazio politika baten beharrean dago. Etorkinen gaineko eztabaida sakona da herrialdean, batez ere muturreko eskuineko taldeen goraldia dela eta. Testuinguru horretan, Angela Merkelen Gobernuak etorkin europarrei gizarte laguntzak mugatu nahi dizkie. Luxemburgoko Epaitegiak arrazoia eman dio.

Immigrazioa Europar Batasuna osatzen duten estatu guztien kezka politiko nagusia bihurtu da azken urteotan. Britainia Handian, esaterako, David Cameron lehen ministroak Europar Batasun mailako akordio bat exijitu du estatu kide izaten jarraitzeko. Alemanian, berriz, Angela Merkel kantzilerak Estatuak eskaintzen dituen gizarte laguntzak mugatu dizkie

Europako beste herrialdeetatik bertaratu direnei. Azaroan, Bundestag berak adostu zituen neurri berrien arabera, Europatik iritsitako etorkinek sei hilabete epea izango dute lana topatzeko. Behin epe hori agortuta, langabezian jarraitzen badute, kanporatuak izan daitezke eta ez dute eskubiderik laguntzarik jasotzeko. Horrez gain, gizarte laguntzen «gehiegizko erabilera» egiten duten etorkinei Ale-

manian sartzeko debekua ezartzea aurreikusten du zalaparta handia sorrarazi duen legediak. Immigrazio eta gizarte laguntzen gaineko eztabaida pil-pilean dago bai gizartean bai politikarien artean.

Alemanian urtero politikoki okerra den hitz bat *–Unwort des Jahres* izenaz ezagutzen dena – aukeratzen du adituez osatutako epaimahai batek. Bozketa horren helburua hizkuntzaren erabileraz ohartaraztea da, baita hedabideek eta politikariek erabiltzen duten lengoaiaren gaineko eztabaida piztea ere. Iaz, *sozialtourismus* hitza hautatu zuten linguistikaren eremuan lan egiten duten irakasle eta ikerlariek. Defentsa Estatu idazkaria den Günter Kringsek (CDU) bota zuen aurreneko aldiz 2013an bere ustetan Estatuak eskaintzen dituen gizarte laguntzez baliatzeko soilik Alemaniara joaten diren kanpotarrak izendatzeko. DPA albiste agentzia publikoak hitz hori jaso eta

Pegida talde xenofoboaren jarraitzaileek pasa den astelehenean Dresdenen «islamizazioaren kontra» egindako manifestazioa. GAUR8



lau haizetara zabaldu zuen. Bavarian Angela Merkelen CDUren baliokidea den CSU talde politikoak ideia horretan oinarritu zuen bere hauteskunde kanpaina. “Gezurretan dabilena, joan dadila”, izan zen kanpainaren lelo nagusia. Lau hitz horietan oinarritu zuen etorkinen kontrako diskurtsoa, batez ere, Errumaniatik iritsitako herritarren aurka. Gizarte laguntzak eskatzeko soilik joan direla argudiatu zuen. CSU talde politiko kontserbadorea Bavarian bakarririk aurkezten da eta II. Mundu Gerratik hona hauteskunde guztiak irabazi ditu.

Sozialtourismus hitzaren erabilerak kritikak ere eragin ditu Alemanian. Beharrak eragindako migrazio mugimenduak “turismoarekin” eta horrenbestez zer bait positiboarekin –aisialdiarekin eta lasaitasunarekin– lotzea ez delako zilegi. Baina, egunero koan, bere erabilera areagotu egin da Europako herrialdeetan «ongi etorriak ez diren etorkinen» kontrako giroa sortzeko.

Sozialtourismus-aren tesia defendatzeko, Angela Merkelen Gobernuak Errumaniako etorkin baten auzia aurkeztu zuen Europako Batasuneko Justizia Epaitegian. Errumaniar jatorriko ezkondu gabeko ama bat Leipzig hirira bizitzera joan zen bere semearekin duela lau urte. Bertako Lanbide Bulegoak 25 urteko Elisabet Danori eskatu zituen gizarte laguntzak ukatu zizkion alde aurretik eskainitako lanpostuei uko egin ziela eta Errumanian ere ez zuela lanik egiten argudiatuz. Senide baten pisuan bizi da. Hilean, 184 euro jasotzen ditu semearen zaintzagatik eta beste 133 euro bere mantenurako. Baina oinarritzko aseguruak aurreikusten dituen prestazioak ukatu zizkioten. Erabaki horren kontra tartekatu zuen helegite administratiboa ere ukatu ziotenez, auzia Leipzigko Epaitegi Sozialera eraman zuen.

Pasa den azaroan, Luxenburgoko Justizia Epaitegiak emakumearen kontrako epaia argitara eman zuen. Alemanian gizarte laguntzak eskatzeko gutxieneko baldintzak ez zituela betetzen adierazi zuen. Hara ez zela lan

CSU talde politikoak, CDUren baliokidea Bavarian, mugetan kontrolak berrezartzea eskatu du, etorkinen kopurua murrizteko. «Gizarte laguntzen turismoa» ere gogor salatu du

EBko herrialdeetako etorkinek sei hilabeteko epea dute lana topatzeko. Horrez gain, gizarte laguntzez neurritz kanpo baliatzen direnei Alemanian berriz sartzeko debekua ezar dakieke

bila joan eta egoera horretan jarraitzen duela gaineratu zuen. Epaia araberak, Europar Batasuneko estatuak ez daude behartuta aktibitate ekonomikorik ez duten etorkinei gizarte laguntzak ematera.

David Cameron lehen ministro britainiarrak gainontzeko estatu kideentzat loteslea den epaia txalotu zuen, «zentzuzkoa» dela esanez. Britainia Han-

diak immigrazio europarra mugatu nahi du, pertsonen eta herrialdeen arteko zirkulazio librea murriztuz.

Sostengu politikoaz gain, argudioak eman dizkio Luxenburgoko erabakiak Merkelen Gobernuari etorkin europarrei laguntza batzuk ez emateko. Baina, 2013an, orduko Barne ministro federala zen Hans-Peter Friedrich (CSU) eztabaida hori mahaigaineratu zuenean ez zegoen «zirkulazio librearen erabilera kaskarra» frogatu edo egiazta zezakeen epairik edo ikerketarik. Europako Batzordeak helarazitako datuen arabera, Europako Batasuneko estatu kideen batetik iritsitako etorkinen artean, %5 baino gutxiagok eskuratuko zuen gizarte laguntzaren bat, eta langabezian dauden etorkinen %80 familia giroan bizi da, eta, kasu horietan, gutxienez senide batek lan egiten du.

Datu horiek eskutan, Cecilia Maström Barne Arazoetarako Europako komisarioak «gizarte laguntzen turismoa» errealitatearekin bat ez datorrela nabarmendu zuen. Etorkinen gehien goak zergak ordaintzen dituela eta Alemaniako ongizateari lagundu egiten diola esan zuen.

Azaroan, Luxemburgok Elisabet Danoren auziaren epaia argitara eman zuen hilabete berean, Bertelsmann fundazioak immigrazioa murriztearen alde dauden argudioak indargabetzen dituen hainbat datu helarazi zituen. 2012an, atzerritar bakoitzak jasotako diru laguntzak baino 3.300 euro gehiago ordaindu zituztela. Beraz, pasaporte alemaniarra ez zuten 6,6 milioi herritarrek, 22.000 milioi euroko plusa sortu zuten.

Era berean, etorkinen heziketa maila areagotzea gomendatu zion arestian aipaturiko funda-



FC Schalke 04 futbol taldearen logotipoa daraman banderan, oin batek nazien esbastika bat zapaltzen du hooliganen mugimendua salatzeke. Odd ANDERSEN | AFP

zioak Gobernuari, hori etekin ekonomiko gehiago lortzeko lagungarria delakoan.

Iaz, 465.000 etorkin iritsi ziren Alemaniara, mundu mailan etorkin gehien jaso zituen bigarren herrialdea izanik. Lehenengo, Ameriketako Estatu Batuak izan ziren. %30 EBko estatu batetako zen. 2007an, portzentaje hori %10ekoa izan zen. Alemanian bost urte baino gutxiago daramaten 100 etorkinetatik 56 lanean ari dira. 2000n, 100etik 48k zuten lana.

Estatistika Bulego Federalaren arabera, biztanleen %20k migrazio fondo bat dute. Osotara, 16,5 milioi pertsona dira, eta horietatik 9,7 milioik nazionalitate alemana dute, eta gainontzeko %6,8k ez.

Alemaniak ez du immigrazio politika jakin bat. Hori da arazoaren muina. Oinarrizko irizpideak finkaturik gabe daude oraindik. Atzerritarren seme-alabek eragozpen gehiago dituzte, esaterako, unibertsitatean ikasteko. Zailtasun horiek areagotu egiten dira baliabide ekonomiko eskasekoak baldin badira.

Irizpidegabezi horri, muturreko eskuineko mugimenduen goraldia gehitu behar zaio. Ohiko eztabaidagune politikoetatik eta Alemaniako Legebiltzarretik at hazten ari den gizarte mugimendu berri baten aurrean gaude. Neofaxista gisa definitzea azalekoa izango litzateke, ez baita muturreko eskuinarekin identifikatzen diren taldeetara zuzentzen soilik. Tradizionalki ezkerrean kokatuta dauden sektoreak ere bereganatu nahi dituzte.

Dresden, Sajoniako hiriburuan, Europako Abertzaleak

Pegida Europako Abertzaleak Mendebaldearen Islamizazioaren Aurka taldeak Barne Arazoetarako ministroen kezka piztu du, gero eta indar gehiago hartzen ari baita

Angela Merkel kantzilerrak xenofobia edo jihadismoa sustatzen dutenen kontra gogor jokatu du dutela adierazi du, Alemaniaren segurtasuna jokoan jartzen dutelako



Angela Merkel kantzilerra eta Volker Kauder buruzagi kontserbadorea, CDUk Kolonian ospatu berri duen biltzarrean.
John MACDOUGALL | AFP

Mendebaldearen Islamizazioaren Aurka (Pegida) deritzen mugimenduak indar handia du. Astelehenean, 7.500 lagun bildu zituen elkarretaratze batean. Aurrez aurre, eliza kristauak, komunitate juduak, Zentro Islamiakoak, Dresden Nazirik Gabe elkarteak, unibertsitateak eta ezkerreko taldeek deituta 9.000 lagun elkartu ziren xenofobia salatzen. Segurtasun indarrek beste estatu batzuetatik iritsitako 1.200 polizia zabaldu zituzten inguruetan.

Hasieran, jarraitzaile gutxi zituen arren, Pegida hazten joan da asteak pasa ahala. Pasa den astean, 5.000 lagun kaleratu zituen Dresden, eta, astelehenean, berriz, 7.500. Sajonian atzerritarren kopurua eskasa bada ere, (%2,5), kultura «islamizatuko» ote den beldurra nabarmen hedatu da.

Pegida errefuxiatuei harrera ematearen eta ustezko jihadistaren presentziaren kontra dago. Asilo politikoa eskatzen dutenen kontrako leloak eta mezuak nonahi ikus daitezke. Bere burua muturreko eskuinean edo neonazi mugimenduetan koka-

tzen ez duten guraso asko ere manifestazioetara beraien seme-alabekin joaten dira.

Mugimenduaren sortzaile eta buruzagia Lutz Bachmann da. Aurrekari penal ugari ditu, batez ere prostituzioarekin lotuta. Bere hitzetan, manifestazioak beharrezkoak dira, «isilarazita» dauden kezkak azalerazteko.

Analista batzuek Pegidaren eta AfD partidu euroeszeptikoaren arteko lotura nabarmendu dute. Momentuz, AfD alderdiko zuzendaritzako ordezkari bakar batek ere ez du esku hartu Pegidaren manifestazioetan, baina bere militanteei horietan parte hartzeko askatasuna eman die gomendio bakarra eginez: sinbolo naziak erakutsi edo lelo xenofoboak oihukatuz gero alde egiteko.

Talde politiko tradizionalak «inposatutako tabuen kontra altxatu den» mugimenduarekiko «begirunea» azaldu du ere AfD alderdiko zuzendaritzak. «Pegida bezalako mugimenduek eta bere atzean dauden horiek erreiriztiak eta beldurrak besterik ez dituzte bultzatzen», salatu zuen aldiz Barne Arazoetarako ministroen konferentziako pre-

sidentea den Ralf Jägerrek. Pegidaren ideologia antzekoa duen beste talde baten sorrera ere ikertuko dutela aurreratu zuen: HoGeSa (Hooligansak Salafisten Kontra). Urrian istilu larriak sorrarazi zituzten Kolonian. Istiluotan 45 polizia suertatu ziren zaurituta.

CDUk ospatu berri duen biltzarrean, Angela Merkelek jihadismoa edo islamofobia bultzatzen dutenen aurka gogor egingo dutela adierazi du. «Segurtasuna bermatzeko konpromiso irmoa berresten dut. Bi fenomeno horiek gure segurtasuna kolokan jartzen dute, eta, horrenbestez, ez ditugu baimenduko», esan du.

Eragin handiko “Frankfurter Allgemeine Zeitung” egunkari kontserbadoreak Alemaniak «immigrazio politika berria» behar duela nabarmendu du. «Elite politikoen arduragabe-riaren ondorioz, indartzen ari den populismoari aurre egin behar diogu. Pausoz pauso indartzen ari den beste Alemania horrek nahi dugun Alemania estal ez dezan neurriak behar ditu-gu», adierazi du.



Alfonso DI VINCENZO | AFP



IKUSMIRA

MEDITERRANEOAK AURTEN 3.419 LAGUNEN AMETSAK IRENTSI DITU

UNHCR Iheslarienezako Nazio Batuen Goi Mandatariak aditzera emandako datuen arabera, aurtan 3.419 etor-kin hil dira Mediterraneoan gurutzatu nahian. Mundu osoan 348.000 lagunek jarri dute euren bizia arriskuan itsaso edo ozeanoak zeharkatzeko saiakeran. Nazioar-terko komunitateak huts egin duela ohartarazi du Anto-

nio Guterresek, UNHCRko zuzendariak. «Gerratik eta pobreziatik ihes egiten duten pertsonen asiloa eta babesa eman beharrean, sarrera debekatu nahi diete gobernu askok. Hutsegite larria da hori, batez ere, gatazka armatuek eragindako errefuxiatuen kopuruak marka guztiak hautsi dituen garaiotan», salatu du Guterresek. Asteartean, 408 siriarrak erreskatatu zituzten Mediterraneoan itsasoan Siziliako kostaldera iritsi nahian ari zirela. Horietatik 61 haurrak ziren eta 54 emakumeak, guzti-guztiak Siriakoak. Sei egun zeramatzaten nora ezean eta, dagoneko, deshidratazio sintomak zituzten. Beraiena da «pobreziaaren turismoaren» aurpegi latzena. A. Lertxundi



Gori-gori dago giroa, azkenengo 70 urteotan bezala, Palestina okupatuan. Eguneroko ogi dira liskarrak. Azkenurrekoan Palestinako Aginte Nazionalako ministroa zen Ziad Abou Eïn erail dute soldadu israeldarrek. Kolonia juduen auziaz eta Zisjordaniako harresiaz arduratzen zen ministroa olibondoak landatzen ari zen ehunka lagunekin batera Ramallah hiriko kolonia baten ondoan, soldaduek jipoitu eta erail zutenean. Badirudi esku beltzen bat hautsak harrotzen ari dela Palestinako egoera leherrazteko.

Testuinguru horretan izan dugu Euskal Herrian azken egunotan Jihad K. Suleiman Rashid, Palestinarekin Elkartasunerako Europako Erakundeko presidentea. Mundu Bat erakundeak antolatutako “Beste bake prozesuen esperientzietatik ikasten” jardunaldietan parte hartu du Palestinako ordezkariak eta Sortu alderdiarekin ere bildu da. Palestinako egungo egoera ikusita, elkarriketako lehen galdera ekidinezina da.

Zure iritziz, III. Intifadaren atarian gaude?

Palestinarrak herri-mobilizazioaren alde daude, baina palestinar buruzagitzaren barnean badirudi batzuk ez daudela ados, agian onargarriak izan daitezkeen irtenbideak zaildu egingo lituzkeela iritzita. Ez dut, beraz, oso argi ikusten, besteak beste Palestinako Aginte Nazionalak eta Israelek segurtasuna elkarla-

JEHAD K. SULEIMAN RASHID

PALESTINAKO ORDEZKARIA

Palestinarrak herriak Europan duen ordezkaria dugu eta Euskal Herrian izan berri da. Palestinarren adiskidetzeari guztiz beharrezko ikusten du. Berehala, gainera, denborak Israelen alde egiten duelako.

Dabid LAZKANOITURBURU

«Palestinarrak bateratu ezean, benetan zaila izango da beste Intifada bat abian jartzeari»

nean koordinatzen jarraitzen dutelako, eta, horrek, noski, ez duelako laguntzen.

Zail ikusten duzu, beraz, beste Intifada bat abian jartzeari?

Ez dut beste batzuen optimismoa zapuztu nahi. Esate baterako, Mustafah Barghouti doktorea Intifada jada hasi dela ziur da. Baina nik ez dut garbi ikusten. Are gutxiago negoziazio mahaian esertzeko dei egiten ari diren honetan. Ameriketako Estatu Batuak ildo berean presionatzen ari dira eta egunotan izan dugu Gobernu frantsesaren, hain zuzen Laurent Fabius Atzerri ministroaren saiakeraren berri ere.

Horra iritsi nahi nuen. Fabius ministroak Parlamentu frantsesak Palestinako Estatua onartu zuen momentua aukeratu zuen negoziazio berriak iragartzeko. Ez al du horrek agerian usten europar agintarien asmoa palestinarren altxamendua nola edo hala oztopatzea baino ez dela?

Baliteke atzetik horrelako zer edo zer egotea. Agian denbora irabazi nahiko dute, bide batez arabiar munduko hainbat estaturen nahia asez. Baina argi dago ezin dutela eta ezingo dutela palestinarrak gure eskubideak aldarrikatzea ekidin.

Nola hartu duzu azken hilabeteotan Europan Palestinako Estatua aitortzeko eman diren urratsak?

Modu positiboan baloratu behar dugu beti, baina horrek ez du esan nahi, positiboa izanda ere, palestinarron nahiak asetzen dituenik. Izan ere, eman den benetako aitortza bakarra Suediarena izan da. Beste guztiak Parlamentuen aitortzak izan dira, eta, gainera, ez dira lotesleak. Positiboak dira baina ez dira nahikoa; gainera, etorkizunean palestinarrak trukean baldintzak inposatu nahiko ez ote dizkiguten da susmoa.

Fabius bera aktore kolonialista da, erreakzionarioa eta Israelen aldekoa. Frantziak inposatu zuen duela 90 urte, Britainia Handiarekin elkarlanean, Ekial-

de Hurbilaren zatiketa Sykes-Picot akordioaren haritik. Eta Estatu frantsesa ari da gidatzen egun II. Sykes-Picot egitasmoa, arabiar mundua berriro ere zatitzeko asmoz. Aktore berdinak dira eta objektibo bertsuak dituzte gainera.

Mundua arabiarra pairatzen ari den egoeraz ari zara?

Noski, Simon Peresek eta Henry Kissingerrek aurreikusi zutena gertatzen ari da. Beste Ekialde Hurbil bat behar dute, geopolitikoki guztiz ezezaguna. Horretarako arabiar nazioa gehiago zatitu behar dute, badakitelako arabiar munduak paper garrantzitsua izango lukeela inperioen esku erori gabe gizartea aldatzeko modeloei aurrera egingo balute.

Nola gauzatzen da plan hori palestinarren kasuan?

Behin eta berriz errepikatzen dute Mendebaldeko potentziek ez dutela begi onez ikusten alde bakoitzeko erabakirik, baina palestinarren erabakiei buruz ari dira beti, noski, ez Israelen inposizioen gainean. Eta horrek ematen dit niri beldurra, Palestinako Estatuaren aitortzaren truke ez ote duten bilatzen palestinarrak *statu quo*-a onartu eta indar okupatzailearen aurkako autodeterminazio borroka betiko alboratzea. Eta hori ez da zilegi, palestinarrak autodeterminazioa eta subiranotasuna errekonozitu behar zaizkigu, are gehiago 1967ko mugek 1947an Palestinari onartzen zitzaizkion lurren herena baino ez dituztenean barne hartzen. Horrela, bada, aitortza ez da positiboa izango presio kolonialistak ezkututzen baditu.

Bi estatuen soluzioa bideragarria dela uste duzu oraindik?

Faltan botatzen dudana zera da: palestinarrak politika ahulei behingoz uko egin behar diegu. Ameriketako Estatu Batuei eta bere negoziazioen aldeko mezuak ez diegu kasurik egin behar, negoziazio horiek Israelen mesederako baino ez direlako. Horrela, Israelek denbora irabazten jarraitzen du. Gogoratu behar da 70eko hamarkadan

”

denborak palestinarron alde egiten zuela, baina orain Israelen alde egiten duela.

Ez duzu uste Israelgo Estatu nora ezean dela, denboraren gestioa ere galtzen ari dela?

Israel ez da bakarrik eroriko, Hegoafrika bakarrik erori ez zen bezala. Jendea kalera irten zenean erori zen. Horregatik da inportantea Intifada. Israel sekula ez da Intifada batera ohituko.

Egia da Hegoafrikak *apartheid*-aren azken urteetan gizate-riaren aurkako krimenak ugaltu egin zituela eta Israel ere horretan ari dela, baina horrek ez du esan nahi epe laburrean Hegoafrikako gauza bera gertatu eta Israel ere eroriko denik. Argi dago epe luzera Israelgo hurrengo belaunaldien aurka doala Estatu sionistaren politika, baina epe luzera. Egun oso eroso daude.

Eroso norekin eta zergatik?

Interes komunak ditu arabiar erregimen batzuekin. Horientzat Iran da etsaia, ez Israel. Daesh erakundeak berak ere argi utzi du bere etsaiak Siriako ateak direla, ez israeldarrak. Azken finean eurek, baita AEBek ere, eratu dute Daesh erakundea. Al Assad siriar presidentea kargutik botatzea zen helburua. Orain euren arteko interesek talka egin dute eta bonbardaketa selektiboekin die Washingtonek. Baina argi dago Daesh erakundearekin amaitzeko modu bakarra Siriako erregimen legitimoarekin eta Irakeko erregimenarekin elkarlanean aritzea dela.

Nola ikusten duzu Irakek bizi duen egoera?

Ez dut nahi inolaz ere Irak zatitzea. Daesh zabaldu dizkie berriro Irakeko ateak estatubatuarrei eta horrek argi erakusten du jatorrian talde hori Washingtonek eratutako munstroa dela. Ezin dugu ahaztu Irak zela Israelen mundu arabiarrean zuen bigarren guda-lerroa. Lehena duela 40 urte suntsitzea lortu zuen Israelen, Camp Davideko akordioekin, Jordaniarekin hitzartutako akordioarekin eta Siria neutralizatuz. Azken urteetan bigarren lerro hori suntsitzea

lortu du. Hemen betiko kontua da palestinarrak beti galtzaile ateratzen garela.

Nola ikusten duzu Israel estatu judu bilakatzeko Netanyahu lehen ministroaren egitasmoa?

Asmo horren atzean ez dago Likud alderdia bakarrik, hauteskundeak aurreratu dituztela eta laboristak eta beste talde batzuk aurka daudela esanez aritu arren. Ezin da ahaztu Netanyahu Jabotinski intelektual sionistaren jarraitzailea dela, eta Menahem Begin bera ere bazela. Azkenean estatu judua eta sionismoa gauza bera dira. Formak aldatzen dituzte baina helburua bera eta berdina da. Sistema eguneratzen dute, makinari olia bota, baina ideiek bere ho-

rretan jarraitzen dute. Ariel Sharonen esan zuen moduan, «palestinarrak onena hildako palestinarra da». Baina Golda Meier bera ere ados zegoen zera esan zuenean: «Haurrek ahaztu egiten dute, nagusiak hil egiten dira, eta, guk, berriz, guk aurrera jarraitzen dugu».

Israel eskusiboki estatu judu bihurtzeak honakoa dakar: arrazakeria eta garbiketa etnikoa. Eta hori ordainduko dutenak 1948ko palestinarrak dira, hau da, egungo Israelgo Estatuaren mugen barnean bizi direnak. Gazaren aurkako azken erasoaldian oso kezkatu azaldu zen Israelgo Armadako Estatu Nagusiaren burua. Bere ustez askoz larriagoa da Israelgo palestinarren mugimendua Gaza-

koa baino; Israelgo bizkarrezur-erako minbiziarekin alderatu zuen. Izan ere, 1948ko palestinarrak diotena argi dago: ez daude alde egiteko prest eta aurrez alde egin beharko luketena beren herrialdera itsasontzi eta hegazkinetan etorri zirenak dira. Israeldarrak, hain justu.


Hamas berak ere gauza bera aldarrikatzen du, ofizialki besterik ez bada ere...

Ofizialki bai, baina tamalez Hamasen ezkutuko helburuak oztopo bilakatu dira palestinarren arteko adiskidetze prozesuan. Hamas prest dago urteak eta urteak emateko palestinarren arteko akordioak gabe, erregimen islamikoa eratzea lortu bitartean. Eta hori kanpotik bultzatuta-ko zerbait da.

Horrek guztiak min handia egin digu. Izan ere, bi aldeek ahailekin sendoa egin beharko lukete adiskidetze akordio batera iritsi eta okupazioarekin amaitzeko. Palestinako herriak erakutsi duelako dagoeneko banezina dela. Eta herriak gauza bakarra eskatzen du: palestinarrak adiskidetu daitezela, hori baita palestinarron indarra, bestela Israelen bere horretan jarraituko baitu, palestinaren onen eta gaiztoen artean bereizketa interesatua egiten.

Beraz, eta amaitzeko, barne arazo larriak ikusten dituzue, batzuen zalantzak eta besteen lehentasunak tarteko, palestinarren etorkizuna bermatu ahal izateko...

Oro har bai, baina Hamasena arazo estrukturalagoa dela uste dut. Qatarren menpe daude eta Jaled Meshaal bera ere Dohan bizi da Hamasek Siriako Anaia Musulmanen alde egin zuenetik. Egia da Hamasekoak ere Anaia Musulmanak direla, baina palestinarrak ere badira eta nazio interesak alderdi interesen gainera jarri behar dira beti. Hamasek horretan kale egin du, lehentasunak ezartzeko orduan kale egin du, palestinarrak ezin baitugu egungo egoera gehiago jasan. Eta hori da lehentasun garrantzitsuena uneotan.



Argazkiak: Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Kursaal Martutene San Sebastián

Martxan da Txomin Enea auzoaren (ber)erakuntza, eta honekin batera, uholdeak direnean soilik erreparatzen diogun meandro arteko eremu luze honen biziberritzea. Makina bat buruhauste emandakoa da Loiolatik Martuteneraino dioan Urumea ibaiaren segmentu hori, gizaki garaikideak natura ulertzeko duen zailtasunen ondorio. Ez natura ez eta hizkuntza ere, bistan denez: “Lohi”+“ola”, “Antzi”+“eta”, toponimia pistak eman zalea da jaso nahi dituenarentzat.

Zaila da Loiola eta Martuteneri buruz zerbait irakurtzea uholdeak, trenbidea, kuartelak ala kartzela hitzak tartean ez direla. Hiritarrok auzoaren inguruan dugun pertzepzio kolektiboa da; domaia, auzo honek Donostiako istorio txundigarrirenetariko bat gordetzen baitu.


1903. Donostia eta Hernani lotu zituen tranbia martxan jarri zen urtea. Garai oparoa dugu hau Donostian: *belle époque* garaia da bete-betean, eta hiriko burgesia dirudunak Martutene ingurua aukeratu zuen udako hilabeteak pasatzeko. Ez da salbuespena, urrutira mugitzeak denbora-kostua handia zuen oraindik, eta antzeko prozesuak gertatu ziren burgesia esanguratsua zuten hirietan (Artxanda Bilbon, Tibidabo Bartzelonan). Hala, ingurune erabat nekazari batean oasi ludiko-erresidential bat jaio zen, egun Martuteneko tren geltokia dagoen inguruan. Horren erakusle dira zutik dirauten villa eta dorretxe gutxi batzuk.

Ez zen bakarra izan, ordea. Hor daude Igeldoko funikularra eta jolas parkea, eta hor zegoen Ulia mendiko aisialdi gunea eta aireko transbordadorea, Leonardo Torrés Quevedoren lan ezezaguna. Baina Igeldo eta Uliak memoria hori nolabait mantendu duten arren, erabat ahantzi du Martutenek hamarkada dirdiratsu hura. Hipika bideko aldapa hasierak ez gaitu jada “KURSAAL” argitsu batekin agurtzen, Las Vegas estiloan.

1908an zezen plaza inauguratu zen, *plaza de festejos públicos* izenez bataiatua. Zezenketez gain dantzaldiak, borroka greko-erromatarra, kontzertuak eta abar luze bat antolatzen ziren bertan. Urte bi geroago Kursaal jolas parkea zabaldu zen FP institutua izandako eraikina dagoen lurretan: «*Kursaal Martutene San Sebastián. American Park, inmenso parque de atracciones. A 19 minutos de San Sebastián por el tranvía de Hernani*».

Gaur egun 21 minutu dira 26 autobusean. Tren geltokia pasa eta eskuinetara dauden arkupeak dira Donostiako beste Kursaal horren lekuko: dantzaldiak egiten ziren kristalezko jauregia, errusiar mendi bat, kobazulo artifizialak eta harribitxia, Port Aventura Tutuki Splash ezagunaren moduko ur-atrakzio bat.

Arrakastak ez zuen askorik iraun, ordea. Diru arazoak medio, 20ko hamarkadaren erdialdera zezen plaza zein jolas parkea itxi egin zituzten, Igeldoko ikuspegi berdingabeekin ezin lehiaturik. Dantzaldiek iraun zuten soilik, baina ez denbora luzez, Donostiako *belle époque* jada gainbeheratuaren erreferentea zein zen garbi uzten zuen deitura baten pean: Campos Elíseos. Haiek ere, egungo donostiarren moduan, Parisen bizi ziren eta. •



ILUSTRAZIOA: Ander GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira }

Ramon SOLA

Otegi eta Iglesias lotzen ditu(zt)en haria(k)

Irribarre egin, irabazi behar dugu-eta». Ezin uka esaldia estreinakoz Pablo Iglesiasen ahotan entzuteak belarrian astindu ederra eman zigula Euskal Herrian, hiru urte inguru badirelako Arnaldo Otegi, Logroñoko ziegatik luzatzen dituen mezu gehienetan, horrelako agur animoso oparitzen digula. Ez dakit zergatik hartu duen esaldi hori erabiltzeko erabakia Iglesiasek, ez dakit Otegi hitz horiek «lapurtu» egin dizkion, maileguan hartu dizkion edota preso politikoarekiko nolabaiteko laguntasun keinua azaltzen duten hitzok. Bost axola. Baina pasarteak antzekotasun bat, hari komun bat, josten duela ondoriozta daiteke: baten zein bestearen irabazteko gogoia. Eta horregatik gustura hartzen dut bai baten ahoan bai bestearen gutunetan, ezker eraldatzaile-iraultzailea gehiegitan erosoegi ageri zaigu-eta galtzaile jantzian.

Hasierako txinparta dirdiratsua apaldu ahala, denbora premia larriarekin bere proposamen politikoak zehazten hasi da Podemos-Ahal Dugu, arlo ekonomiko-tik hasita. Eta espero zitekeena gertatu da, egungo eta hemengo errealitateari egokitu behar baldin bazaio eraldaketaren bidea, oso zehaztuta dagoelako: behar duten guztiontzako oinarritzko soldata (Maroto eta *marototar* guztiei ez, beraz), zerbitzu publikoen indartzea (pribatizaziorik ez), zerga politika aldatzea (iruzurrik ez, desoreka handitzerik ez), etxebizitza bermatzea (desjabetzei ez), mailegua erraztea (banka publikoari bai), enpleguaren banaketa lantzea (langabeziari ez), soldatak orekatzea (prekarizazioari ez)... Sozialdemokratatzat jo dute plangintza etiketazaleek, eta Norvegia edota Finlandia ispilutzat hartzea kritikatut diete Venezuela edota Iran eredu izatea nahiago izango luketenek. Ez bai!

Aurkeztutako programa ekonomikoa azken lau urteotako EH Bilduren hauteskunde proposamenekin zein gobernu ekintzekin alderatuz gero, zaila litzateke sako-neko ezberdintasun bakar bat aurkitzea. Are gehiago hori guztia garatzeko alderdi berriak planteatzen dituen prozedurei erreparatzen badiegu: zor publikoaren auditoria (gargentasunari bai), gizarteak onetsi behar ditue-

la aurrekontuak (parte hartzeari bai)... Politika soilik esparru honetara mugatuko balitz, esan liteke EH Bildu eta Podemos-Ahal Dugu txanpon bereko bi alde direla, Ebro ibaiak banatuta nahi bada, baina berdintsuak.

Beste gauza askotxo zehazteke ditu oraindik, ordea, modako indar politikoak, seguruenik buruhauste gehiago eragingo dizkietenak. Ezkerreko ikuspegi eraldatzaile batek ezinbestean erantzun beharko diolako, esaterako, Kataluniaren zein Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidearen erronkari, eta Estatu mailako indar baten ikuspuntutik egin beharko du. Ikusteko dago «kontraesan» horren korapiloa nola askatzen duten, eta erantzun horrek Podemos-Ahal Dugu EH Bildurengana hurbildu ala urrutiratzen duen. Epe motzera hartu beharko du hautua Katalunian, aurreikusten den bezala hauteskundeak urteko lehen hiru hilabeteetan ospatzen badira eta bertan aurkeztu bada; eta geroxe-

Podemos-Ahal Duguk abstentzioaren lubakian gotorturiko herritar asko politizatu eta mobilizatu ditu. EH Bildu lehiakide duela uste duen orok arretaz begiratu beharko lioke PP, PSOE eta EAJren urduritasunari

ago Nafarroan, aldaketarako giltza bere eskuetan geldituko balitz.

Bitartean, ezkerreko abertzaleen interesei begira hainbat lorpen eskuratu ditu jada Podemos-Ahal Duguk, bere bide propioari ekinez. Abstentzioaren lubaki galtzailean gotorturiko herritar asko politizatu eta mobilizatu dituela bistan da, Estatu mailan indar harremanak sakonki aldatuz eta Euskal Herrian aurretik sortutako gehiengo berriak sendotuz. Ezker independentistak inolaz ere mugiaraziko ez litzuzkeen herritarrek aldaketaren alde lerrokatu ditu. Urte askotako zenbait joera eta diskurtso immobilista malguarazi ditu, aukera berriak zabalduz. Lehiakide EH Bildu duela uste duen orok arreta handiagoz begiratu beharko lioke PP, PSOE eta EAJren urduritasunari. Eta irribarre egin, bai, irabaztea gertuago dago-eta. •

LABRIT ONDAREA

Haurrek birramatxi-birraitatxien bizitzak ezagut ditzaten

 **JENDARTEA /** Maider Iantzi Goienetxe

Birramatxi eta birbiloba elkarri begira, zer kontatuko ote diote batak bertzeari? Denbora gutxian egonen dira elkarrekin eta haurra ez da momentu horiez apenas oroituko. Baina, Labrit Ondarearen lanari esker, handitzen denean birramatxiren bizitzaren nondik norakoak ezagutzeko aukera izanen du.

Labritek ondare ez materiala bildu, aztertu eta hedatzen du, etorkizunean gazteek beren birramatxi eta birraitatxien bizitzak ezagut ditzaten. Nafarroako artxiboa osatzeko bidean, 1.500 testigantza jaso ditu ia 400 udalerritan eta populazioaren %1 elkarriketatzer

iristea du helburu. Bestalde, eskaintza norbanakoei zabaldu eta pertsona bakoitzari bere ondarea familiari uzteko aukera ematen hasi da. Gaizka Aranguren zuzendaria dioen bezala, mundu honetan produkturik onena erlijioak ematen digu, bizitza eternoa. Labritek, bigarren produktu interesgarriena eskaintzen du,

Gaizka Aranguren Labrit Ondarea enpresako zuzendaria, lan mahaian. Ondare ez materialaren bilketa, azterketa eta transmisioaren kudeaketan aditua da.
Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

memoria eternoa. Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) *honoris causa* doktore guztien ondare ez materiala biltzen ari da orain, baina nahi duen edozein lagunek egin diezaioke eskaera, mundutik pasatu izanaren testigantza uzteko. Bertan hainbat arlo edo gai sartzen dira: bizitzaren faseak, herri antolaketa, lana, memoria historikoa, erlijioa, kultura, jaiak, musika, kantutegia, ipuinak, ahozko literatura, aisialdia...

ALT XORRA HONDORATZEN EZ UTZI
Adineko jendea hiltzen denean sekulako altxorra hondoratzen da beraiekin, mila istorio eta historia, eta gaur egun eskura dugun teknologia guztia kontuan hartuta, ondare hori gorde eta pantailara eramatea da Labriten ideia. Arangurenen iritziz, premiazkoa da altxor hori jasotzea, baina ez da presa gutxiagokoa gaz-



Arangurenen iritziz, premiazkoa da altxor hori jasotzea, baina ez da presa gutxiagokoa gazteei transmititzea, herritarrak protagonista izanen dituen ikus-entzunezkoen bidez

Ondare ez materialaren bilketa, azterketa eta transmisioaren kudeaketan adituak dira. Zuzendariak azpimarratu duenez, Europan ez dute arlo honetako bertze aditurik ezagutzen

teei transmititzea, herritarrak protagonista izanen dituen ikus-entzunezkoen bidez. Garai batean transmisioa ahoz egiten zen; orain, ordea, teknologia berriek hartu dute indarra, eta hortik informazioa pantailara eramatearen garrantzia, bertan itsasten direlako gure begiak. Xedea etorkizunean elkarriketak familia bakoitzaren barrenean egitea da.

Labritek Iruñeko izen bereko frontoiaren ondoan dituen bulegoak bisitatu ditu GAUR8k. Informazio kantitate handia gordetzen dute bertan kalitaterik onenean. Horren erakusgarri dira ikusi ditugun “hozkailla”, segurtasun kopiak egiteko seta (erosi berria dute eta euren nahia interesa dutenei zerbitzua eman eta kostuak konpartitzea da) eta gela berezitua, segurtasun handiko gauzak gordetzeko baliatzen dutena.

Gelaz gela eta pantailaz pantaila jarraitu dugu, 11 laguneko lantaldeko kide batzuk ezagutzen (hauek hainbat kolaboratzailearen laguntza dute): Itziar Aranguren ikus-entzunezko ekoizpenen arduraduna, komunikazioa eta salmentak daramatzan Itziar Luri, Araitx Amatria diseinatzailea...

Grabazio gelan, Garazi Erburu ekoizlea eta Aitor Ortiz konposi-

torea buru-belarri harrapatu ditugu lanean (eta ezustean, ez baitzuten bisitaren berririk) eta pasilloetan Maddi Barberrekin egin dugu topo. Bortzirietan kokatutako dokumentala dakarki eskuetan, Beran eman berri dutena, amuarrain baten ahotik Bidasoa ertzeko herrietako istorioak kontatzen dituen.

Ondare ez materialaren bilketa, azterketa eta transmisioaren kudeaketan adituak dira. Zuzendariak azpimarratu duenez, Europan ez dute arlo honetako bertze aditurik ezagutzen. Orintxe izan dute Indiako baten berri.


Proiektu ugari dituzte esku artean, hagitz desberdinak, eta horien artean Nafarroa Garaiko ondare ez materialaren bilketa da garrantzitsuen.

NAFARROA GARAIA ETA BEHEREA

Orain dela zazpi urte abiatu zuten egitasmoa Eusko Kultur Fundazioarekin, eta berriki NUPekin batera artxiboaren azken xedea lortzeko konpromisoa berretsi dute: XX. mendeko Nafarroako gizarte tradizionalaren oroimenaren gordailu gisa, populazioaren %1ek parte hartzea, hau da, 5.000 lagun elkarriketatzea. Navarchivo.com webgunean jartzen ari dira bildutako informazioa.

IBAIEN DOKUMENTALAK, BERRIRO SO EGITEKO

Urtero ibai bati buruzko erreportajea egiten dute Labrit Ondarean Nafarroako Gobernuarentzat. Bidasoa, Ebro, Ega eta Zidakos landu dituzte jada eta Aragoirekin ari dira orain. Gipuzkoara salto eginez, Urumearekin osatuko dute bertze dokumental bat. Lan hauen bidez, jendea kontzientziatzea nahi dute, eta ibaira berriro begiratzea. Euskal Herriko ibaien entziklopedia egitea da euren asmoa. Aitor Ortiz eta Gaizka Aranguren Labriteko konpositorea eta zuzendaria arrantzaleak ere badira eta beren pasioa eta lana uztartuz, arrantzari buruzko ikus-entzunezkoak ere egiten dituzte.



Labritek Iruñeko izen bereko frontoiaren ondoan ditu bulegoak. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS



Mapa batean erakutsi dio GAUR8ri Arangurenek herriz herriko bilketa. Berde ilunez ageri dira bilketa egina duten eta transmisio fasean dauden herriak, berde argiz biltzen ari direnak, horiz udalari egitasmoa aurkeztu diotenak eta grisez oraindik proiektua aurkeztu ez dutenak. Labrit Ondarea Nafarroa Garaiaz arduratzen da, eta, Euskal Kultur Erakundea, Nafarroa Behereaz. Azken horretan Terexa Lekunberrik egin ditu elkarrizketak.

OLTZA ZENDEA

Abel Castillo Ondare arduradunak Oltza Zendean egin duten azkeneko lanaren berri eman digu. 24 herritar elkarrizketatu dituzte aurten, horien artean Mari Cruz Martinez de Irujo, memoria zoragarria duen Izkoko 103 urteko emakumea.

Mari Cruz 11 anai-arrebetan bosgarrena da eta jaio zen lekutik hurbil bizi da. Aita Izkuen sortua zuen, eta, ama, al-diz, irurtzundarra. Gurasoek Irurtzungo ferian ezagutu zuten elkar eta Mari Cruzek ere ez zuen urrun alde egin, Arzurira ezkondu baitzen. Igan-

dero lagunekin Etxaurirako errepidean barna egiten zuen paseoan ezagutu zuen senarra izanen zuena eta ezkondu zirenetik Aratzurin bizi da. Zendeako historiaren mende bateko lekukotasuna da berea.

Bertzeak bertze errepublikano eta karlisten arteko borrokak oroitzen ditu: etxetik aditzen zituen Iberoko Hiru Gurutzetako fusilamenduen tiro hotsak, Ezkabako ihesean parte hartu zutenak edota bonba hegazkinak Iruñerriko zerua zeharkatzen. Anaiek kontatzen zioten gerraren berri frontetik bueltan.

Kontu alaiagoak ere kontatu zizkion Martinez de Irujok Labriti. Adibidez, Errege bezperan joareak jotzen zituztela eta Domu Santu Egunean kandelak sartzen zituztela kalabazen barrenean jendea beldurtzeko.

24 elkarrizketekin osatutako bideoa ikusgai jarri dute helbide honetan: [Vimeo.com/channels/navarchivo](https://vimeo.com/channels/navarchivo).

FAMILIAREN JATORRITIK HASITA

Oltza Zendeako solasaldi horiek guztiak kudeatu dituen Castilllok erabili ohi duten metodologia azaldu digu. Familiaren jato-

Segurtasun protokolo
hagitz handia jarraituz
biltzen dute informazioa.
Jagoba MANTEROLA | ARGAKI
PRESS

rriaz galdetuz hasten dituzte elkarrizketak: etxearen deskribapena, argirik bazuten ala ez, urik, nola garbitzen zuten arropa, nolako komuna zuten, zer janzkera, zer elikadura lan eta jai egunetan, noiz iritsi ziren lehendabiziko aurrerapenak...

Hortik lanen banaketara pasatzen dira, txerria hiltzen zuten egunera, eta gero herrira zabaltzen dute ikuspegia, deskribapen orokorretik hasita: etxeak, kaleak, bizilagunen artean eta inguruko herriekin zituzten harremanak, zertaz bizi ziren, nekazaritza, lantegiak, udala edo kontzejua nola antolatzen zuten, auzolana, egur loteen antolaketa, partzelak, bertako lanbi-

Jakina, gerra eta gerraostea nola bizi izan zuten kontatzen dute elkarrizketatu askok, eta erlijioaz ere mintzatzen dira, pisu ikaragarria baitzuen herritarren bizimoduan

Bizpahiru orduko elkarrizketak atera ohi dira. Orain arte luzeenak bederatzi ordu iraun ditu. Elkarrizketatuak guztiaz zekien, eta, gainera, hizlari ona zen

deak, artisauak, dendak, tabernak, saltzaile ibiltariak...

Bizitzaren faseena da elkarrrizketen bertze atal bat: haur bat jaiotzean zeinek laguntzen zion amari, bataioa nolakoa zen eta “purifikazioa” edo garbiketa nola egiten zuten (denbora bat egon behar zuen jaioberriak etxetik atera gabe eta lehen irteerak elizara izan behar zuen; toki guztietan agertzen da hau, egun kopurua bakarrik aldatzen da).

Haurtzaroko jolasak, jaunartzea, eskola, gaztaroko dibertsioa, bikoteak nola elkartzen ziren, ezkontzako janzkera eta besta... Eta, azkenik, heriotza eta honen aurrekoa. Apaiza etxera etortzen zen komunioa ematera, prozesio txiki bat egiten zen, dolua, gaubeila etxean eta gero bazkaria, normalean kartetan edo musean jokatzen bukatzen zena.

Jakina, gerra eta gerraostea nola bizi izan zuten kontatzen dute, eta erlijioaz ere mintzatzen dira, pisu ikaragarria baitzuen herritarren bizimoduan. Elizaren deskribapena, nola kokatzen ziren gizonak eta emakumeak, errogatibak, debekuak, soroen eta animalien bedeinkapena, erritu guztiak.

Jaiak eta ospakizunak lantzen dituzte gero, eta, bukaeran, beti galdetzen die Castilllok abesti, sendabelar eta bestelako kontuei buruz.

UDALEKIN ELKARLANEAN

Elkarrizketatuko dituzten lagunak aukeratzerakoan ez dute adin mugarik jartzen ez goitik ez behetik. Udalarekin batera egiten dute hautaketa faktore ugari kontuan hartuta: pertsonaren egoera, generoa, herriaren garapena... Lan antropologiko bat egiten dute.

Bizpahiru orduko elkarrizketak atera ohi dira. Orain arte luzeenak bederatzi ordu iraun ditu. Elkarrizketatuak guztiaz zekien, eta, gainera, hizlari ona zen. «Herria oso ongi ezagutzen zuen. Aguazila izana zen, sakristaua, auroraa... Hiru egunez joan ginen bere etxera», agertu du Castilllok. Auroroak egunsentian kantatzera ateratzen dira. Egun bakoitzak bere abestia du. Aitona auroraa

Nafarroako ondaretik bildutako kantu eta kontuetatik jaio da Xaldun Kortin ere. Liburu, DVD eta disko batean, ume txikiekin euskaraz hitz egiteko formulak ematen dira

Bertze hamaika lan ere egiten dituzte Labriten. Adibidez, irizpidedun turismoa bultzatzen hasi dira Iruñean gure ondare, kultur eta nortasun bideak ezagutarazteko

zuen eta berarekin hasi zen ateratzen elkarriketatua bera ere.

Gaizka Aranguren koadro bat margotzearekin alderatu du herrietan egiten duten lana. Ezaugarritze bileretan erabakitzen dute zer pieza izanen dituen puzzleak. Adibidez, nekazaritzarekin estuki lotutako herria bada badakite pieza batzuek nekazaritzarekin zerikusia izan behar dutela. Udal ordezkariak eta herriaren kulturaz eta historiak dakiten pertsonen parte hartzen dute bileretan.

Elkarriketak egin eta bizpahiru orduko grabazioak editatzen dituzte gero. Argazki bildumak egiten dituzte, interpretazioak... Bakoitzak eskatzen diena. Editatu eta Udalari ematen diote lan guztia, eta herrira itzultzen dira bildutakoa aurkeztera.

Segurtasun protokolo hagitz handia jarraituz biltzen dute informazioa. Dagoeneko 1.500 unitate dituzte bilduta, eta 150.000 sekuentzia katalogatu-

Dagoeneko 1.500 unitate dituzte bilduta, eta 150.000 sekuentzia katalogatuta.

Jagoba MANTEROLA |
ARGAZKI PRESS

ta proiektu nagusi honetan. Guztia Nafarroako Unibertsitate Publikoko datu basera doa.

Jasotakoa landu eta dokumentalak, CDak eta liburuak egiten dituzte. "Imotz: bizitzaren garaiak" ondare ez materialaren ikus-entzunezko entziklopedia osatu dute Iruñeko Merindadeko ibarrean. 2008an eta 2009an egindako 21 elkarriketen sailkapena da sei DVDz osatutako bilduma: herria, osasuna, euskara, harremanak, lanak, festak, erlijioa, gerra, etxea eta etxeak, eta bizitzaren garaiak dira gai nagusiak.

XALDUN KORTIN

Nafarroako ondaretik bildutako kantu eta kontuetatik jaio da Xaldun Kortin ere. Liburu, DVD eta disko batean, ume txikiekin euskaraz hitz egiteko formulak ematen dira, eguneroko bizitzan transmititzeko ipuinak eta esamoldeak, euskaldun berrientzat aproposak.

Xaldun Kortinen inguruan ikastaro eta saioak ere antolatu dituzte. Gurasoak eta umeak aritu dira elkarrekin, hizkuntzaren transmisiorako biderik «laburrena eta politena» baita.

Bertze hamaika lan ere egiten dituzte Labriten. Adibidez, irizpidedun turismoa bultzatzen hasi dira Iruñean barna bisita gidatuak eginez, gure ondare, kultur eta nortasun bideak ezagutarazteko. Baina horiek hurrengo erreportajeaz ezagutuko ditugu....

Super Ibrahim

Koldo Sagasti

Urteak dira Ibrahim tabernaz taberna lanean ikusten dudala. Gazte adeitsua da.

Irribarre bat oparitzen dio abegikortasunez agurtzen duen orori. Jada zortzi urte dira Senegaletik etorri eta kale salmentan dabilela, baina gaur arte ez gara konplimentuzko hitzetatik pasatu. Gaur eman dut harekin luze eta zabal solas egiteko urratsa, eta bere historiak hunkitu egin nau. Familiaren tailerra utzi eta, etorkizun duinagoa merezi zuela sinetsita, hil ala biziko bidaia batera ontziratu zen egun batean. Berak bezala, igerian ere ez zekiten beste 126 lagunekin konpartitu behar izan zuen Kanarietako kostalderaino eramanezuen patera; zazpi egunez eta zazpi gauez; itsaso sakonean nora ezean. Eta zorionekotzat du bere burua labanaren ahoaren gaineko paseo horretatik onik atera zelako.

Gasteizera iritsi eta salmenta ibiltarian lanean sartu zen lehenik, era klandestinoan, ezer baino lehen langilea delako, eta berak dioen bezala, «ez dut bizitza arriskuan jarri honaino etorri eta eskean ibiltzeko». Baina gurean ez du giro samurrik topatu Ibrahimek. Berak aitortzen ez badu ere, etsaitestuinguru batera iritsi da. Kanpotarrei gero eta mesfidantza handiagoz begiratzen dien hiri batera, aurreiritzi xenofoboak elikatzen dituzten agintari batzuek gobernatutako hirira. Beldur da egunen batean bere jardun ilegal bezain zilegizkoan harrapatu eta kanporatuko ote duten. Baina ez du maleziarik, ez du hitz txar bakar bat ere errezeloz tratatzen duten horientzat.

Aitaren etxea utzi eta abentura ikaragarri horri ekin zionetik egunez egun gertatzen zaion guztia egutegi batean apuntatzen duela kontatu dit; berak bizitakoa ahantz ez dadin, noizbait norbait bere historia idatz dezan. Ez da zutabe bat izango, ezta beldurrezko eleberri bat ere, superheroiaren istorio bat izango da. Eta amaiera pozgarri duna, arrazismo-rik gabeko Gasteiz batean. •





NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Elikagai ekologikoak kontsumitzeko bederatzi arrazoi on

Elikagai ekologikoak kontsumitzeko arrazoiak asko dira, baina laburbilduz, hona hemen bederatzi arrazoi on:

1.- Osasuntsuak dira: Elikagai ekologikoak osasuntsuak dira, ez dauzkatelako nekazaritza konbentzionalen ohikoak diren pestizida, antibiotiko, ongarri sintetiko, gehigarri eta kontserbagarri kimiko zein bestelako substantzia toxikoen arrastorik. Epe ertain-luzean, mota hauetako substantziek gure organismoa kalte dezakete, funtzio metabolikoetan arazoak sortuz. Nutrizio adituen arabera, gaixotasun degeneratiboetariko askok elikaduran dute jatorria. Elikagai ekologikoen beste ezaugarri bat da mantenugaien kontzentrazio handiagoa izaten dutela. Izan ere, ekoizpen eredu honen oinarria da lurra bera orekatuta mantentzea, laboreak eta abereak orekatuta egon daitezzen. Horrek egiten du elikagai ekologikoek bitaminen kontzentrazio handiagoak izatea (nabarmenki, C bitaminarenak), oinarritzko mineral gehiago edukitzea (kaltzioa, magnesioa, burdina, kromoa...) eta antioxidatzaile, karbohidrato eta proteina kopuru altuagoak izatea.

2.- Gehigarri sintetikorik ez dute: Elikagai ekologikoek ez dute gehigarri sintetikorik. Substantzia hauek osasun arazo ezberdinen jatorrian egon daitezke, hala nola, gutxiegitasun kardiakoak, osteoporosia, migrainak eta hiperaktibitatea. Ikerketa ezberdinek erakutsi bezala, substantzia sintetikoak ez dira ezinbestekoak, ez elikagaien ekoizpenean ezta berauen kontserbazioan ere. Gure organismoaren behar nutrizionalak asetzeko, sasoiz kanpoko elikagaien beharrik ez daukagu, nahikoa da sasoian sasoikoa jatearekin.

3.- Pestizidarik ez dute: Nekazaritza konbentzionalen ohikoa da ehunka pes-

tizida kimikoren erabilera. Horiek horrela, egunero kontsumitzen ditugun elikagai konbentzionalen pestiziden arrastoak daude. Ikerketa toxikologikoei erakutsi dute pestiziden eta minbiziaren, alergien edota asma bezalako patologien arteko erlazioa.

Zentzu horretan, ezin ahaztu pestiziden erabilera oso kaltegarria dela nekazariarentzat. Arazo hori are larriagoa da garapen bidean dauden herrialdeetan, non pestiziden erabilera oso lausoki araututa dagoen. Esan gabe doa substantzia hauek ingurumenari sortzen dioten kaltea ere nabarmena dela. Pestiziden erabilerak gizartearentzat dauzkan kostuak kalkulatzeko orduan, ez da kontuan hartzen hauek sortutako kutsadura garbitzeak zer suposatzen duen.

4.- Genetikoki eraldatutako organismoak ez dute: Nekazaritza ekologikoan ez da onartzen genetikoki eraldatutako organismoen (GEO) erabilera. GEOen landaketak eragin kaltegarriak dauzka ingurumenarentzat zein osasunarentzat. Gainera, monolaborantzaren eskutik, GEOekin egindako nekazaritzak laboreen uniformetasun genetikorantz garamatza, horrek etorkizuneko izurri eta gaixotasunen aurrean suposatzen duen arriskuarekin (alegia, landare guztiak genetikoki berdinak badira, izurri edo gaixotasun baten aurrean denek jokatuko dute berdin, eta, ezin badiote aurre egin arazoari, uzta osoak galduko dira).

5.- Antibiotikorik ez dute: Abeltzaintzan antibiotikoez egiten den erabilerak

larritasuna sortu du, bai gizakion osasunean honek izan dezakeen eraginaren gatik eta baita antibiotikoen erabilera masiboak berauen eraginkortasunaren galera dakarrelako. Ekoizpen ekologikoaren araudiak antibiotikoen erabilera sistematikoa debekatzen du. Aziendak tratatzerako orduan, homeopatia, fitoterapia eta bestelako sendabide alternatiboak lehenesten dira, tratamendu alopatikoak soilik salbuespeneko egoera oso konkretuetara mugatuz.

6.- Jasagarriak dira: Ingurumena zaintzea da ekoizpen ekologikoaren lehentasunetako bat. Elikagai ekologikoak jatean, ingurumenaren zaintzan laguntzen dugu, lurraren, airearen eta uraren kutsadura saihestuz. Kutsadura gutxien sor-



tzen duena da, karbono dioxido gutxien emititzen duena, ekoizpenean erabilitako energia unitate bakoitzarengatik elikagai kopuru handiena ekoizten duena... Finean, nekazaritza ekologikoak klima aldaketari aurre egiten dio, eta, aldi berean, kutsadurarik ez du sortzen. Energiaren aurrezpenean laguntzen du, lehengaiak ahalik eta hobekien aprobetxatuz. Nabarmenezkoa da, beste alde batetik, aniztasun biologikoaren gutxitzea dela egungo ingurumen arazoaren artean garrantzitsuenetakoa bat. Nekazaritza ekologikoak tokian tokiko espezie eta barietateen erabilera sustatzen du (espezie eta barietate modernoak erabilera baztertu gabe, bistan da), hauen biziraupena bermatuz.

7.- Kalitate maila gorena dute: Ekoizpen eredu ekologikoaren trazabilitatea baserri-tik mahairaino bermatzen da, Europako Batzordearen 834/2007 Erregelamenduan ezarritako baldintzen bitartez. Ekoizpen gunetik salmenta gunera arte, kateko eragile guztiak ikuskaritza eta kontrol sistemen barnean daude: erabili diren lehengaiak, jarraitutako eraldatze prozesua, etiketatua...

8.- Abereen ongizatea errespetatzen dute: Aziendaren estresa gutxitu aldera, araudiak neurri zehatzak ezartzen ditu ukuiluen zein belardien tamainari buruz, abereak erabateko askatasunetik gertu da- goen egoera batean bizi daitezzen. Era ho-



rretan, animaliak beraien erritmo natura- lean eta bizi baldintza egokietan hazten dira. Hormonen erabilera ez da onartzen. Belarjaleen elikadura larreetan oinarritzen da, pentsu eta bazka ekologikoekin osatuz. Abere gazteen kasuan, amaren es- nea da oinarria lehenengo hilabeteetan. Estresik gabeko abereak osasun arazo as- koz gutxiago dauzka, eta, ondorioz, pro- duktua hobeak ematen ditu.

9.- Natura errespetatzen dute: Nekaza- ritza ekologikoak lurra zaintzen du, deser- tifikazioa geldotuz; uraren mantentzea sustatzen du eta ez ditu akuiferoak kutsa- tzen; bioaniztasuna indartzen du, ekosis- temak mantenduz eta basapizti, intsektu eta bestelako espezieen biziraupena ahal- bidetuz. Oreka ekologikoa dago erdigune- an. Hori lortzeko tresnak dira laboreen txandakatzeak eta elkarketak, ongarri berdeak, ezkaia, abeltzaintza estentsiboa bera... Finean, baliabide naturalen erabi- lera zentzuduna egitean datza eredu ekologikoa, nutrienteak berriz ere siste- man sartuz, konpostaren bitartez. Landa eremuen garapen jasangarria sustatzen du nekazaritza ekologikoak, naturaren oreka jarduera ekonomikoaren lehen le- rroan jarritz.

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua

Usaimena

Amaia Agirre

Ezagutu nuen usaimenaren arabera ni han nengoen edo ez bazekien ikasleitsu bat. Ezagutu nuen usain- tzeke gaitasunik ez zuen neska ka- talan bat, eta sinestezina iruditu zitzaidal- a gogoratzen dut. Ez dut, hala ere, neska ha- ren usainik gorde. Ezta ikasle harenik ere. Gure amona zenarena bai. Edo agian ez. Ikusmena galdu ondoko sudur mugimen- du bizkorren testigu izan nintzen umetan. Entzumenak eta ikusmenak laguntzen ez zionean, usaimena zen gure amonaren ipa- rrorratza. Sukaldeko giroa usaintzen dut, baina pertsonen usainak bereizteko gai ba ote naiz? Usaimena omen da zentzumene- tan zoliena. Zorrotzena. Lotsagarri geratu- ko ginateke zakurraren usaimen gaitasuna- rekin alderatuz gero, baina usaimena

dastamena baino 10.000 aldiz biziagoa edo indartsuagoa omen da.

Chicagoko unibertsitatekoek egindako ikerketa batek usaimenaren galera eta he- rrioren hurbiltasuna elkarrekin zerikusian jarri ditu. Eta nik usain txarra hartu diot kontuari. Hala ere, usaimenaren galerak ez du berehala hilko garenik esan nahi. Iragar- penak baino ez da. Zerbait behar bezala ez doan zantzua baino ez da. Oraindik ez daki- te usaimen ahularen eta heriotzaren arte- ko lotura zehatza zein den, baina ziur dau- de giza harremanek, jan ohiturek eta ingurugiroak eragina dutela. Eta usain ez- berdinak antzemateko gaitasunaren galera parkinsonaren edo alzhemerraren aurre- kari da, dirudienez.

Ni ez naiz usaimenaren garrantziaz ia inoiz jabetzen, baina ezinbesteko zentzu- mena da. Gaixorik gaudenean eta sudurra itxita dugunean apenas penatzen garen ezeri usainik ez hartzeaz. Nik uste amorra- zio handiagoa sortzen digula jakiei zapore- rik hartu ezin.

Baina usaimenak arriskuaren berri ema- ten digu. Edo gure inguruko egoeraren be- rri. Sukaldean edo kanpoan zerbait erre- tzen ari denean nor dugu salbatzaile? Edo ibai bat zakarrez beteta dagoenean? Eta za- karretara jaki bat noiz bota behar dugun, zerk salatzen digu?

Usaimena heriotzarekin lotu du ikerketa batek, baina nik bizitzarekin lotzen dut. Ba- koitzak gure usaina dugu, eta horrek ere egiten gaitu berezi. Horrek ere besteengan- dik bereizi egiten gaitu, eta begietatik be- zainbat, edo gehiago, sartzen zaigu sudur zuloetatik. Inoiz gutxitan pentsatu nuen usaimenaren garrantziari buruz. Inoiz ez naiz usaimena zer moduz daukadan begi- ratzera joan. Zuek? Niri mediku azterketa guztietan galdetzen didate ikusmenaren eta entzumenaren inguruan. Ahoaren ego- eraz ere bai. Baina ukimen eta usaimenari buruz? Pentsa egunerokotasuna zer litzate- keen usaimen eta ukimenik gabe. Maite di- tuzunak usaindu eta sentitu ezean akabo! Beraz, hartu arnasa sakon, eta usaindu. •

Horra, horra, gure Olentzero!



iRRITZIA:



Ainara
AZPIAZU
"Axi"

«Oso marka onak
lortu ditut aurten,
baina bereziena
larunbatekoa da,
nire prestatzaile
zenari eskainia»

IDOIA

ETXEBERRIA

HARRI-JASOTZAILEA

Orioko harri-jasotzaile gazteak aurreko asteburuan bi egunetan bi errekor berri ezarri zituen. Emakumerik apenas aritzen den kirolean, bidea sendo zabaltzen ari da.

Mikel IBARGOEN

Idoia Etxeberria (Orio, 1992) marka guztiak hausten ari da eta aurreko asteburuan aho zabalik utzi zuen jendea beste behin bi egunetan bi errekor berri eginda. Orioko harri-jasotzaileak 112,5 kiloko kubikoa hiru aldiz jaso zuen hiru minutuko epean, ostiralean. Eta, larunbatean, berriz, 100 kiloko kopari 56 jasoaldi eman zizkion bost minutuko bi txandatan Mendaron -27 lehenengoan eta 29 bigarrenengoan-.

Aparteko gorputzaldia du azken boladan (abuztuan Euskal Herriko Txapelketa irabazi zuen eta urrian beste marka bat egin zuen; 100 kiloko harri kubikoa bost minutuko txandan zortzi aldiz jaso zuen) eta momentua primeran baliatzen ari da. Argi dago kirol arloari begira marka horiek balio ikaragarria dutela, baina azken lorpenak Idoiarentzat duen esanahia are eta handiagoa da. Izan ere, 2013ko azaroan hil zen ordura arte bere prestatzaile izandako Jose Ramon Unanue, eta, hain zuzen, hura izan zen Mendaron jaso zuen harria oparitu ziona. «Idoia, nik harri honen pusketa bat nirea izatea nahi dut eta egunen batean marka politen bat lortzen baduzu niri eskaintzea gustatuko litzaidake». Hitz horiek esan zizkion Jose Ramonek Idoiari, eta, hortaz, merezitako omenaldia egin dio Idoiak bere entrenatzaile, gidari eta erreferentzia izandakoari. Oso pertsona garrantzitsua izan zen Idoiarentzat, eta, oraindik, egunero presente du oroimenean.

Bi egunetan bi marka eginda asteburua borobila izan da aurrekoa.

Oso pozik nago. Aste borobila izan zen eta, oro har, urte guztia izan da ona. Aurreko urtean gauzak ez zitzaizkidan nahi bezain ondo atera, baina zorionez egoera hari buelta ematea lortu nuen eta oso marka onak lortu ditut. Horrek erakusten du egingdako lan gogorrek bere fruituak eman dituela.

Lehenengo marka, gainera, Orion bertan eta festetan. Pentsatzen dut jendearen artean ere zeresana emango zuela.

Egia esanda horrelakoetan jendeak oso ondo erantzuten du herrian. Eguna gerturatzen den heinean jakin-mina handitu egiten da eta lanak amaitutakoa jendearen poza sumatzen dut. Gainera, jende pilo bat gerturatu zen ikustera eta egia esateko oso gustura nago jendeak izan duen erantzunarekin.

Bigarrena, berriz, Mendaron lortu zenuen eta Jose Ramon Unanueri eskaini zenion, zure prestatzailea izandakoari.

Pertsona oso berezia zen niretzat. Nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuenetariko bat zalan-tzarik gabe. Gaur egun lortzen ari naizen guztia ez nukeen lortuko bere laguntzarik gabe. Fisikoki prestatzeaz gain, psikologikoki ere lan handia egin zuen nirekin. Halaber, eguneroko bizitzan eragina duten zenbait gauza ere berak irakatsi zizkidan. Momentu haietan nire gidari eta lagunik onena izan zen.



Aurreko urtean hil zen birus baten ondorioz eta oso gaizki pasa nuen. 8-9 hilabete egon nintzen ezer egin gabe eta harriaren mundua uztekotan ere izan nintzen. Epe hori pasata txapelketan parte hartzeko deitu zidaten, baina indarrrik gabe nengoen. Hala ere, anaiak animatuta [Jose Ramoni omenaldi batzuk emateko bueltatu behar zuela esan zion] parte hartu nuen eta aurrera egitea lortu dut. Eta aurtengo txapelketa eta bereziki larunbateko marka berarentzat dira.

Oraindik oso presente duzu.

Bai. Egunero gogoratzen naiz berarekin. Ni gaur naizena bera-ri esker naiz. Ume bat nintzela hasi nintzen lanean berarekin eta eraldatu egin ninduen. Berak erakutsi zidan nolakoa izan behar duen kirolari batek. Sekula ez dut topatuko Jose Ramon bezalakorik. Berak ematen zidan segurtasuna ikaragarria zen. Gutxiarekin asko egiten genuen. Etekin ikaragarria ematen zuten bere lan saioek.

Etengabe ari zara hobetu eta hobetu. Non dago Idoiaren muga?

Ez dakit. Hori denborak esango du. Ni momentuz oso ondo aurkitzen naiz eta markak eta erakustaldiak egiten jarraitze ko aukerak ematen dizkidaten bitartean horiek aprobetxatzen saiatuko naiz.

Bi marka saiakera segidan egitea ez da ohikoa. Nondik sortu zen ideia?

Hasiera batean ez zegoen horrela pentsatuta. Nik hilaren bostekoa soilik egitea pentsatzen nuen, baina egun horretarako hitzordua baieztatu nuen arratsalde berean deitu zidaten Mendaron beste saiakera bat egiteko eskaintza eginez. Entrenamenduetan probatzen hasi ginen eta egin nezakeela ikusita baiezkua eman nuen. Baina ez da normalena, ez.

Gainera, bi harriak oso desberdinak dira.

Egia da. Kubikoarekin lana mantso egin behar izaten da,

«Aurreko urtean gauzak ez zitzaizkidan nahi bezain ondo atera, baina zorionez egoera hari buelta ematea lortu nuen eta oso marka onak lortu ditut aurten. Horrek erakusten du egindako lan gogorrak bere fruituak eman dituela»

«Jose Ramon Unanue, nire prestatzailea, iaz zendu zen. Oso pertsona garrantzitsua izan da nire bizitzan. Gaur egun lortzen ari naizen guztia ez nukeen lortuko bere laguntzarik gabe. Fisikoki prestatzeaz gain, psikologikoki ere lan handia egin zuen nirekin»



Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

eta, koparekin berriz, biziago. Egin beharreko mugimenduak ere desberdinak dira. Beraz, ez da erraza bi modalitate horien entrenamenduak uztartzea. Batetik bestera igarotzean buruko txipa erabat aldatu behar da. Horrek kontzentrazio handia eskatzen du eta ez da xamurra. Baina dena ondo atera da eta gustura azkenean.

Mota horretako probetan gorputza asko behartzen da eta normalean denbora behar izaten da errekupeatzeko. Nola erantzun zizun gorputzak?

Zalantza puntu bat banuen bi saioak segidan izanda, baina gorputzak ondo erantzun zidan. Fisikoki baino gogorragoa izan zen psikologikoki. Orion egin nuen markako jaialdia nire markako soilik prestatuta zegoen eta denak nik egingo nuenaren zain zeuden. Gainera, festen txupinazoaren ostean izan zen eta jende pilo bat zegoen bertan. Normalean marka bat egin eta handik bi egunera edo izaten dut beherakadaxo bat, baina, kasu honetan, larunbatean bes-

te hitzordu bat nuenez, tentsioa mantendu behar nuen. Eta, orain, egia esan, ondo nago. Agian aurreraxeago izango dut beherakada, nork daki.

Eragin psikologikoa aipatu duzu. Kirolari batzuk kikildu egiten dira plazan. Hau da, ez dute ondo kudeatzen jendearen «presio» hori. Eta, beste batzuk aldiz, hazi egiten dira. Zu zein multzotan kokatzen zara?

Ni normalean hazi egiten naiz jendaurrean. Jendea begira dudan lanean gusturago eta errazago egiten dut. Egia da batzuek ez dituztela egoera horiek ongi kudeatzen, baina nik normalean etxean egindako lana plazan egitea lortzen dut, eta, aukeratu beharko banu, nahiago dut lana jendaurrean egitea.

Argi dago ostiralean egindako ahaleginak larunbateko jarduna baldintzatu egin zuela. Soilik larunbateko saioa bazenu, 100 kiloko kopari jasoaldi gehiago emango zenizkiola uste al duzu?

Hori orain esaterik ez dago, baina argi dagoena da bi helburu batera jarri beharrean bakararra jarritz gero, horretara bideratzen duzula zure prestaketa guztia eta normalean emaitzak ere hobekien izaten dira. Dena den, egin dako markarekin pozik nago.

Momentuz 100 kiloko koparekin emakumeen alorrean erreferentzia bakarra zegoen. Estitxu Almandozek 17 jasoaldi eman zizkion bost minutuko txanda batean, eta, zuk, berriz, 29. Aldea ikaragarria da.

Ni nire lana egitera eta nire guztia ematera joan nintzen, beti bezala. Nire helburua nire lana ahalik eta hobekien egitea zen eta ez bera leku txarrean uztea.

Almandoz eta zu bakarrik zabiltzate mundu honetan eta bien arteko aldea handia da momentuz. Nola daramazu aurre egin diezazukeen aurkaririk ez edukitzea? Pentsatzen dut lehiakortasun falta hori kalterako izango dela.

Lehiakortasun falta azken lau urteetan izan dut. 2010etik ba-



Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

«2010. urtetik
bakarrik ibili naiz
Estitxu Almandoz
hasi den arte. Nire
lanak eta errekorrak
egiten joan naiz,
baina aurkariak
ematen duten
tentsio puntu hori
edukitzea ona dela
uste dut. Aurtengo
txapelketan Estitxu
animatu da eta
asko poztu naiz»

«Dezentetan deitzen
didate eta sekula ez
zait iruditu albo
batera utzi
nautenik. Nik uste
dut emakume
izateagatik soilik
zeresan handiagoa
ematen dudala, eta,
egia esan, ezin
naiteke kexatu»

karrik ibili naiz lau urtez, Estitxu hasi den arte, eta, egia esan, nabaritu dut. Nire lanak eta errekorrak egiten joan naiz, baina aurkariak ematen duten tentsio puntu hori edukitzea ona dela uste dut. Aurtengo txapelketan Estitxu animatu zen eta asko poztu nintzen. Oso lan ona egin zuen gainera. Nik uste dut lanean jarraitzen badu aurkari gogorra izango dela.

Bi hilabete inguruan hiru marka egin dituzu. Zure ibilbideko momenturik gozoenean zaudela esan daiteke?

2012an 150 kiloko harria jaso nuenean ere oso ondo sentitzen nintzen, baina gero lesio batzuk izan nituen eta orduz geroztik orain bezain indartsu ez naiz sekula egon, eta, agian, orain egongo naiz nire puntu gorenean.

Egun harriaren munduko erreferentzietako bat zara, baina, atzera begiratzuz, nolatan hasi zinen?

Aurretik futboleko jokatzeko nuen, baina egun batean Orioko

herri kirol taldeko neska bat ikusi nuen harria jasotzen eta aitari nik ere probatu nahi nuela esan nion. Nire familiak lotura estua izan du betidanik herri kirol munduarekin, baina harriarena bereziki berria zen guretzat. Hala ere, probatu egin nuen eta gustatu egin zitzaidan. Egun hartako kontua izan zen. Lehenago sekula ez zitzaidan burutik pasa ere egin, eta ez zen bereziki erakartzen ninduen gauza bat.

Nola hartu zuten ingurukoak?

Orduan 14 urte baino ez nituen eta hasieran errotzat hartu ninduten. Gainera, garai hartan gerritik gaizki nenbilen eta niretzat kaltegarria izan zitekeela uste zuten. Baina bertan gerria eta hankak asko lantzen dira eta mesede ere egin didala esango nuke. Jendeak ere asko hitz egiten zuen horri buruz hasieran. Ez da emakume asko ibiltzen den kirola, baina, orain, jendeak normalizatzen hartzen du.

Segituan hasi zinen emaitza onak pilatzen eta agian ho-

rrek ere lagundu zuen jendearen pentsaera aldatzen.

Inongo zalantzarik gabe. Gauzak lortzen nindoan heinean jendeak ikusi zuen oso serio hartzen nuela, gustura egiten nuela eta gaitasuna banuela; eta jendea nire lana baloratzen eta estimatzen hasi zen.

Harriak jasotzen ibiltzeaz gain giza proban ere aritzen zara.

Bai. Moxtakak taldeko kidea naiz. Baina bertan esijentzia maila ez da horren altua. Ondo pasatzera eta kirola egitera joaten gara eta ez bete-betean lehiatzera.

Zer desberdintasun nabarmenduko zenituzke harriaren eta giza probaren artean?

Alde nagusia da harriaren kasuan zuk bakarrik lehiatzen duzula, eta, giza proban berriz, taldean aritzen zara. Horrek esan nahi du bakarrik lehiatzean erantzukizun guztia zurea dela, eta, beraz, egun txar bat duzunean ezinezkoa da disimulatzeko. Taldeka, aldiz, nahiz eta

zuk zure lana behar bezain ondo ez egin, gainontzekoek berea ematen badute egun horretako zure ahulezia oharkabea pasa daiteke.

Hori gutxi ez eta zaldiaekin hasi zara.

Horretan ere gustura nabil. Anaia eta biok ibiltzen gara zaldiaekin. Gure familia beti egon da herri kirolekin lotuta eta nik gozatu egiten dut modalitate desberdinetan.

Normalean emakume kirolariek egiten dutena bigarren plano batean geratu ohi da. Ez dakit zein den zure kasua, zer sentsazio duzun.

Nire kasuan behintzat nahiko gustura nago. Dezentetan deitzen didate eta sekula ez zait iruditu albo batera utzi naute. Nik uste dut emakume izateagatik soilik zeresan handiagoa ematen dudala, eta, egia esan, ezin naiteke kexatu.

Emakume kirolari bakan batzuek baino ez dute kirolek bizitzeko aukera eta pentsatzen dut zuk ere ezingo duzula bizi kirolek soilik.

Ez da posible, ez. Egia da dirua ematen digutela egindako lanengatik, baina neurri berean gastuak ere baditugu. Arropak, harriak, bidaiak... hori guztia ordaindu egin behar da, eta, askotan, jasotzen duguna baino gehiago gastatzen dugu. Mundu honetan sartu bezain pronto esan zidaten bertatik aberastea ezinezkoa zela eta nik hori ere banekien. Nik behintzat ez daukat bertatik bizitzeko aukerarik eta gustatzen zaidalako nabil.

Eta harrira itzulita, zein izango da zure hurrengo erronka? Horrez gain ba al duzu egitea gustatuko litzazukeen beste-lako marka berezirik?

Hurrengo erronka Aian izango dut urtarrilean, baina oraindik zehazteko dago zer egingo duan eta zein harriarekin. Bestalde, 2012. urtean 150 kiloko errektangularra jaso nuen eta marka hori hobetzea gustatuko litzaidake. Ez dakit noiz baina hori buruan dut.





Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Hezkuntza unibertsala, beteko ez den helburua

Beranduenez 2015erako munduko neska-mutil guztiak eskolara joango zirela erabaki zuten 2000. urtean Dakarren (Senegal) 160 herrialdek baino gehiagok «Hezkuntza denontzat: gure konpromiso komunak betetzea» ekintza markoa onartu zutenean. Beranduenera iristen ari gara. Jada, 2015etik aurrera begira jarri eta eztabaidatzen ari dira garapen agendako helburuak. Atzera begiratu eta datu berriek erakutsi dute, ordea, mundua urrun dagoela ipinitako helburu oinarritzkoenetakoa bat betetzetik, eta milioika neska-mutilek eskolara joan ezinik jarraitzen dutela.

Unescok kaleratutako txostenen arabera, Europar Batasunak 2010 eta 2011 artean ia heren batean gutxitu zituen oinarritzko hezkuntzara zuzendutako diru laguntzak. Neurri horrek, hezkuntza arloan lorpen eskasak egin dituzten 74 herrialderi eragin die zuzenean. Horien artean daude Bangladesh, India, Malawi, Papua Ginea Berria eta Hegoafrika.

Diru laguntzak gutxitu egin dituzte eta, gainera, esleitzen den dirua ez da derrigorrez behar gehien duten herrialdeetara iristen. Hala, 2011n oinarritzko hezkuntza laguntzera zuzendutako 5.800 milioi dolarretik 1.900 soilik izan ziren diru sarrera txikiak dituzten herrialdeen-tzat: hau da, lehen hezkuntza unibertsala lortzeko gehien borrokatu behar dutenen-tzat. Oinarritzko hezkuntza laguntzeko herrialde txiroenei emandako diru laguntzak %9 gutxitu ziren 2010 eta 2011 artean: dirutan, 189 milioi dolar gutxiago. Garai berean, diru sarrera ertainak dituzten herrialdeei zuzendutako laguntzak kopuru bertsuan handitu ziren. Munduko Bankuak handitu egin zuen oinarritzko hezkuntzari eskainitako laguntza orokorra, baina hortik diru sarrera txikia duten herrialdeei zuzendutako laguntza ia laurden batean gutxitu zuen. Diru gutxiago eta okerrago banatuta. Ondorioz, dagoen dirua gero eta gutxiago iristen da behar handiena dutenengana.

Eskolara joaten ez diren haurren kopuru handienak dituzten herrialdeetatik hiru soilik daude laguntzen ha-

mar hartzaile nagusien artean: Etiopia, India eta Pakistan. Pakistanen eskolatu gabeko haurrak 5,1 milioi izatetik 5,4 milioi izatera pasa ziren urtebetean. Gaur egun, Pakistanen Indian baino hiru aldiz haur gehiago dago eskolatu gabe.

«Hezkuntza denontzat» egitasmoaren jarraipen txostenaren arabera, diru sarrera txikia duten herrialdeek urtean 26.000 milioi dolar behar zituzten lehen hezkuntza unibertsala 2015erako lortzeko. Gaur egun jasotzen duten laguntzak ez du galera finantzarioa ekidin eta murrizketek galera hori areagotzea besterik ez dute eragingo. Azken hiru urteotan oinarritzko hezkuntza laguntzeko galera finantzarioa 10.000 milioi dolarretan handitu da. Pentsatzekoa da zein den arrazoi nagusia: laguntza emaileek ez dute beren hitza bete.

Munduan, bien bitartean, herrialde askok borrokan jarraitzen dute analfabetismotik aske diren lurralde bihurtzeko. Horretarako, Unescok ezarrita du marra: 15 urtetik gorako pertsonen %96k irakurtzen eta idazten jakin behar du. Kuba izan zen anal-

fabetismotik libre izendatutako lehen herrialdea. Hori, 1961ean lortu zuen, Kubako Iraultza gertatu eta bi urtera. Hunkigarria da ikustea nola herritarrek elkarri irakasten dieten analfabetismoaren zuloatik ateratzeko.

Gure inguru hurbilean, berriaz, barne produktu gordinetik urtero hezkuntzan inbertitzen den zenbatekoa gero eta txikiagoa da. Espainiako Estatuan, esaterako, 2009tik gutxitzen ari da. Itxura guztien arabera kopurua jaisten joango da gobernuak Bruselarekin hartutako konpromisoak direla-eta, 2015erako %3,9 bilakatu arte. Europako batez bestekoa %5,25 zen 2011n Eurostat berak emandako datuen arabera. Barne produktu gordinaren %7 zortzi urtez hezkuntzara bideratzeak 70.000 milioi euro kostatuko lituzke. Asko dirudi... Bankuak erreskatatzea 40.000 milioi euro kostatu da.

Eusko Jaurlaritzak, barne produktu gordinarekiko hezkuntza gastua %4,01etik %3,97ra jaitsiko du, %6tik oso urrun. Horrela daude kontuak eskolara joatea jaio-tzearekin bat datorrela dirudien parajeotan! •



Kuba izan zen analfabetismotik libre izendatutako lehen herrialdea. GAUR8

{ koaderno } **Garazi Goia**

Distira

Pasa den urrian Patrick Modiano idazleari Literaturako Nobel saria eman ostean, azken bi hilabeteetan idazle frantsesen nobelak irakurtzeko aldarlean ibili naiz; konpultsiboki liburu bat bestearen atzetik irakurtzen pasatzen dudana fase horietako bat izan da. Batzuetan pasatzen zait hori. Sorpresa atseginak topatu ditut bidean.

“El Pais” egunkarian duela gutxi zutabe batean irakurri nuen Frantziar literatura ez zela amaitzen Sarte edo Camusen idatziekin, nahiz eta haiek definitu zuten existentzialismo edo *nouveau roman* garai haren ostean literaturan gainbehera bat hasi zela askok pentsatu. Modianori emandako Nobel sariarekin, esan daiteke distira hura berriro sortu dela eta idazle frantsesak galdutako protagonismoa irabazten hasi direla, hainbat urte beste batzuen itzalean pasatu ondoren.

Frantziako kulturaren testuinguruan, beti harritu nau batez ere telebistan kulturak duen presentziak. Ohikoak dira, adibidez, intelektual anitz azaltzen diren debateak eta antzeko saioak *prime time* garaian; batek pentsatuko luke ez direla ikusle gehien erakarriko duten programak, baina printzipioak mantentzean datza akaso, arriskuak hartzean. Lehen aipatu dudana artikulua berean esaten zuen kazetariak, datoren urtean Frantziar 7.000 milioi euroko aurrekontua izango duela Kultura Ministerioak. Konparaketa moduan, Erresuma Batuan, *Arts Council* deitzen den erakunde entzutetsuak, 840 milioi baino ez ditu jaso artean arlo ezberdinetarako. Eta, Espainian, adibidez, 750 milioi eurokoa izango da kultur jardueretarako hurrengo urteko aurrekontua, Frantziar baino ia hamar aldiz gutxiago.

Modianoren lanetara itzuliz, bere liburu bat bakarrik irakurri dut eta ez zen konbentzitu eta ilusioz hasi nuen liburu horietako bat. Istorioa ez da memorian iltzatuta geldituko zaidana edo bere bigarren liburu bat irakurtzera bultzatu nauena; baina, gauza sinpleak sofistikazio puntu batez kontatzeko duen trebezia izan da atentzioa eman didana, bere estilo zuzen eta argian azalduta. Estilo zuzen horren harira, badago Frantziar idazle

belaunaldi bat literatura burutsu eta ezberdin bat sortu duena. Horien artean aipatzekoak dira Annie Ernaux, Jean Echenoz eta Emmanuel Carrère adibidez, Michel Houellebecq eta Amélie Nothomb bezalako fenomeno literarioetatik pasatuz.

Annie Ernauxen liburu bati buruz pare bat gauza aipatu nahiko nituzke, duela gutxi izan dut eta lehenengo aldiz bere lanak irakurtzeko plazera. Frantsesez “La place” izenburuduna da liburua, irakurri ez baduzue benetan gomendatzen dudana. Hain zuzen, lehen aipatzen nuen belaunaldi horrek egin duen literatura ezberdinaren isla da, estilo ziztatzaile batekin, narrazio iradokitzaile eta probokatzaile batean oinarrituta, teknika konplexuen beharrik gabe. Modianoren liburuak ez bezala, honek harapatu ninduen, hasiera-hasieratik. Emakume batek bere aitari buruz hausnarketa intimoa egiten du, askorentzat

Espainiar Kultura Ministerioak
750 milioi euroko aurrekontua izango du hurrengo urtean. Frantziar baino ia hamar aldiz gutxiago, izan ere, bertan 7.000 milioi euroko aurrekontua dute eta kultur jardueretarako

debekatuta legokeen marra edo muga hori zeharkatuz, sentimenduak biluztuz, aita-alaben arteko erlazio hotza deskribatuz. Aitaren heriotzak sortutako erreakzioak naturaltasunez kontatzen ditu. Aldi berean, Ernaux hezi zen lekuari eta inguru sozialari buruz kritika onesta egiten du, hainbat aurreiritzi eta besteen ikuspuntuari entzungor. Klase sozial ezberdinen arteko hartu-emanetako dinamika ere modu esplizituenean ditu kontagai, generalizazioetan erori gabe. Bere lan autobiografikoa dela esaten da. Arriskuak hartzen dituzten idazleak atsegin ditut. Horietako bat da Annie Ernaux.

Liburuaren hasieran azaltzen den aipu batekin bukatuko dut gaurko artikulua, Genetek behin esandakoa da: «Literatura akaso ez da salbazioa edo askapena izango, baina bai azken errekurtsioa». Ederra iruditut zait. •

MUNDUKOLOREAK

Mapa handietan kabitzen ez diren haur txikiek eta herri txikiek kontatutako mundua

JENDARTEA / amagoia.mujika@gaur8.info

Munduan kultura asko eta desberdinak daudelako; denak direlako interesgarriak eta zaindu beharrekoak; eta kultura denek dutelako elkarri zer erakutsi eta elkarrekin zer ikasi. MunduKOlloreak mapak ideia horiek itsatsi nahiko lituzke haurren logeletako paretetan. Datozen abenduaren 20an eta 21ean salduko da GARArekin batera.

Durangoko Azokan GARAREN postuan zer edo zer erosi zutenek oparitan eraman zuten etxera MunduKOlloreak mapa, haurrentzako munduko herri eta kulturen mapa (100x70 zentimetrokoa). Durangokoa hitzordu jendetsua izaten da, iskanbilatsua tarteka, eta maiz eskuak faltan izaten dira nahi den guztia eskuratzeko. Hartara, MunduKOlloreak mapa GARArekin batera salduko da datozen abenduaren 20an eta 21ean ohiko saltokietan sei eurotan.

«Munduak handientzat bakarrik pentsatu zituen eskubideak, baina haur txikiek eta herri txikiek ere altxatuko dituzte beren koloretako esku libreak», dio «Munduko koloreak» abestiak. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek kantatzen dute eta Amets Arzallus bertsolariaren hitz zoragarriak jasotzen ditu aipatu abestiak. Ba hortik asko dauka MunduKOlloreak mapak, hain juxtu munduko toki desberdinetako haurrak baititu protagonista. Kontinente bakoitzean bizi diren herri eta kulturen adibide haurrak hartzen ditu, eta neska-mutikoen bikote desberdinen bidez ematen du munduaren berri. Arrazak, janzkerak, ohiturak, paisaiaren inguruko erreferentziak, ondarearekin zerikusia dutenak... modu desberdinean kontatzen du mapak munduko haurren berri. Kultura asko eta desberdinak daudelako; denak direlako interesgarriak eta zaindu beharrekoak; eta kultura de-

nek dutelako elkarri zer erakutsi eta elkarrekin zer ikasi. Maparen helburua da ideia horiek itsastea MunduKOlloreak mapa beren logeletako paretan itsasten duten haurren mundu ikuskeran.

Guztira 50 bikote daude, asko herri txikietakoak, normalean mapa handietan agertzen ez diren kulturetakoak. Honakoak, Amerikan: inuitak, quebecarrak, siuxak, estatubatuarrek, afroamerikarrak, aztekek, kuba-tarrak, maiak, yanomamiak, brasildarrak, kitxuak, maputxeak eta gautxoak.

Europar: euskaldunak, katalanak, eskoziarrak, tiroidarrak, grekoak, samiak eta errusiarrak.

Asian; palestinarrek, kurduak, arabiarrek, persiarrak, kazakhak, paxtuak, mansiak, jakutak, mongoliarrak, tibetarrak, indiarrek, nanaik, txinatarrak, khmerrak eta japoniarrak.

Afrikan, berriz, hauek: berbereak, sahararrak, tuaregak, mandingak, nubiarrak, somaliarrak, bantuak, kongoarrak, masaiak, himbak eta zuluak.

Eta, azkenik, Ozeanian, papuarrak, aborigenak, australiarrak eta maoriak.

EIDER EIBAR ILUSTRATZAILEA


Mundua ikusteko modu koloretsu eta atsegin horren atzean Eider Eibar ilustratzailearen begirada eta lapitza daude, bereak baitira ilustrazioak. Oso gustura egindako lana dela esan digu, baina aitortu digu une garrantzak ere izan direla tartean. «Ikerketa lana egin behar izan dut toki bakoitzeko haurren ezaugarrien berri jasotzeko;

itxura fisikoari, janzkerari eta egiten dituzten jarduerari buruzko informazioa. Eta une batzuetan lana oso gogorra izan da, munduko zenbait tokitan ia ezinezkoa baita haurren ereduak topatzea. Gerra eta zapalketa topatzen nituen; haur armatuak edo haur hilak topatzen nituen. Toki batzuetan oso zaila izan da haurrak haurren ekintzak egiten topatzea. Barrena mugiarazi dit horrek, tristatu eta amorratu egin naiz askotan. Horregatik, ozen aldarrikatu beharko genuke haurrek haur izateko eskubidea izan behar dutela munduko txoko guztietan», kontatu digu Eibarrek.

Eta helburu horixe ere badu MunduKOlloreak mapak, hemen eta han haurrek haur izateko duten eskubidearen aldarrikapen koloretsua izan daiteke.

Alboan, MunduKOlloreak mapa. Horma-irudiak 100x70 zentimetroko tamaina dauka. Beheko aldean eta ondorengo orrialdean mapan agertzen diren neska-mutiko bikoteen 50 ereduak. GAUR







infraganti EIDER EIBAR

Marrazteari inoiz utzi ez dion heldua dela dio berak. Haurra zela azkar deskubritu zuen marrazkiak balio ziola pentsatzen zuena, imajinatzen zuena eta amesten zuena kontatzeko eta horretan segitzen du. Larraitx Zuazorekin batera Dirudi enpresan dabil, ikus-entzunezkoak eta irudia lotzen. Eider Eibarrek egin du MunduKOlloreak mapa.



Eider Eibar ilustratzaile zornotzarrak egin du MunduKOlloreak mapa. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

Eider Eibar (Zornotza, 1980) marrazkilaria da boka-zioz, lanbidez, pentsaeraz, hizkeraz, ikuskeraz. Pentsatzen duena, ikusten duena, imajinatzen duena, amesten duena marrazki forman sortzen zaio. «Txikitandik gustatu izan zait marraztea. Eskolaz kanpo marrazketa klaseetara joaten hasi nintzen, eta hor teknikak ikasi nituen. Niretzat bide oso naturala izan da. Maiz esaten dut inoiz marrazteari utzi ez dion heldu bat naizela. Marrazkia beti egon da oso presente nire bizitzan». Marraztea pasioa izatea gauza bat da, eta beste bat

marrazkia lanbide bihurtzea. «Pauso hori zailagoa da, finean lanbide bat delako eta inork ez duelako lanik egin nahi, betiko haur izan nahi dugu, ezta? Baina zer hoberik gustatzen zaizuna izatea juxtu zure lanbidea? Oso pozik nago bizitza irabazteko nire moduarekin».

Eibarrek esan bezala, bere bizitza txikitandik oso bideratuta egon da lapitzak markatzen duen lerro horretara, zuzena batzuetan eta kiribildua besteetan. «Arte Ederrak ikasi nituen eta geroztik egin ditudan lan guztiak marrazkiarekin oso lotuta egon dira. Formatu desberdinetan, teknika desberdinak erabiltz, baina irudia beti egon da

presente nire bidean. Kontsumitzailea naiz eta baita sortzailea ere».

Gaur egun, Dirudi enpresan dabil Larraitx Zuazorekin batera (www.dirudi.eus). «Larraitx ikus-entzunezkoetan aritzen da, eta, ni, marrazkigintzan. Dirudin bion jakintzak batzen ditugu eta emaitza askoz politagoa da». Bideogintzan eta irudigintzan lan esanguratsuak egin dituzte Dirudi enpresan: Berri Txarrak taldeak «HARIA Tour 2012-2013» bira bukatu ostean zaleei eskainitako bideoaren grabaketa, edizioa eta postprodukzioa; Gari abeslariaren «No Space No Time» abestiaren bideokliparen edizioa eta postprodukzioa; Kilometroak 2011 jairako bideokliparen edizioa eta postprodukzioa, edota «Beldur Barik 2012» kanpainaren spotaren grabaketa, edizioa eta postprodukzioa, besteren artean. Irudigintzan ere MunduKOlloreak mapa baino lehenagokoa da Eibarrek GARA egunkariarekin daukan harremana. Izan ere, Katixa katu botadunaren ipuinetan marrazkiak bereak dira (Peru Magdalena idazleak eta Eider Eibarrek Juul saria eskuratu zuten lan horregatik), eta baita haur kanten bildumako ilustrazioak ere.

LANERAKO ERREMINTA DESBERDINAK

Haurren liburuetarako ilustrazioak egiten ditu batez ere Eider Eibarrek. Eta horretarako, material desberdinekin saio eta esperimentuak egitea izugarri gustatzen zaio. «Teknika oso desberdinak daude, baita material anitzak ere. Aukera asko daude eta gustatzen zait saltsan ibiltzea, batez ere eskuzko marrazkietan aritzen naizenean. Beste batzuetan zuzenean ordenagailuan hasten naiz, eta hor ere aukerak ugariak dira. Lanaren ezaugarrien arabera bide bat edo bestea hautatzen dut. Niretzako ordenagailua lanerako beste erreminta bat da, akuarelak, lapitzak edo akrilikoak bezalaxe. Lanaren eta lortu nahi dudun emaitzaren arabera hautatzen dut erreminta».

Esan bezala, haurren munduan aritzen da batez ere. «Gustatzen zait eta eroso sentitzen

naiz, baina azkenean mundu horretatik iristen zaizkit enkar-gu gehienak, eta horregatik aritzen naiz haur munduko argitaletxeetan. Helduentzako lanak egin izan ditut, askoz gutxiago, baina oso gustura egin ditut. Ona iruditzen zait haurren mundutik atera eta beste lan batzuk egiteko aukera, eta horretan saiatzen ari naiz orain».

Izan ere, ilustrazioa estu lotzen da hurrekin. «Badirudi haurrentzako materialek derri-gorrez marrazkiak behar dituztela, eta, alderantziz, helduenek ez dutela marrazkirik onartzen. Helduak bihurtzen garenean, marrazkia desagertu egiten da gure bizitzatik, eta ez dut ulertzen zergatik. Egia da gero eta heldu gehiago dagoela marrazkiaren zale eta kontsumitzaile dena. Komikizale asko dago, marrazki bizidunen filmak ikustera joaten diren helduak badaude.... Badirudi marrazkiak umeen gauzak direla, eta ez dutela balio gauza serioez hitz egiteko. Baina ez da horrela. Marrazkia, finean, irudia egiteko beste teknika bat besterik ez da. Mezuan dago edukia, eta mezu hori nahi duzun bezala konta dezakezu, baita marrazki bidez ere».

Sorkuntzak baditu bere uneak eta erritmoak. Sorkuntza izan daiteke plazera, baina baita sufrikarioa ere. Batzuetan aise dator, besteetan bultzaka. «Praktika hartzen duzula uste dut. Noizbait pentsatu izan dut: eta ideiak amaitzen zaizkidan egunean, zer? Ba patata tortillak egingo ditut saltzeko! Ideiak edukitzen ere ikasi egiten da, ikasten duzu zure burua lantzen eta sortzeko jarreran jartzen. Askotan ideiak bat-batean datoza, autobusean zoazela, eta beste batzuetan zure burua arieta horretara jarri behar duzu. Lan honetan hau, hau eta hau kontatu behar dut. Eta horiek lantzen hasten zara, ideiei bueltak eta bueltak ematen, eta azkenean hurbiltzen zara nahi duzunera. Nik kontzeptuak lotuz sortzen ditut ideiak. Beste gauza bat da, noski, ideia onak edo txarrak izatea. Baina ideiak izatea bera ez zait hain zaila iruditzen». •

amagoia.mujika@gaur8.info



IRAUNKORTASUNAREN SARIA

Harakai, Arroyabe eta Gomiztegi elikagai enpresak dira Eroskik lehen aldiz emango duen saria lortzeko hautagaiak

 **KONTSUMOAI/** oihana.llorente@gaur8.info

Gaur zortzi banatuko da lehen aldiz Iraunkortasunaren Eroski saria. Lurra eta itsasoarenganako errespetua eta enplegua, osasuna eta ingurumen aberastasuna sustatzen dituzten euskal ekoizleak saritu nahi ditu Eroskik lehiaketa honetan. Kontsumitzaileek izan dute, baina, azken hitza.

Lurra eta itsasoaren ganako errespetua eta enplegua, osasuna eta ingurumen aberastasuna sustatzen dituztenen ongintza eta konpromisoa aitortzea helburu duen Iraunkortasunaren Eroski saria banatuko du izen bereko kooperatibak. Elikagai industriako euskal ekoizleak saritzea xede duen lehen lehiaketa

honek Harakai, Arroyabe eta Gomiztegi enpresak ditu finalista lehen edizio honetan. Datorren larunbatean, abenduaren 20an, ezagutuko dugu garaile nor den. Azken hitza, baina, kontsumitzaileek euren izan dute, Eroskiren webgunean gizarteari irekitako botazio sistema baten bidez erabaki baita nor den irabazlea. Hori, baina, gaur zortzi jakinen dugu.

Eroskiko bazkide-kontsumitzaile batek, bazkide-langile batek eta Lakuako Gobernuaren menpeko Eusko Label ziurtagiria kudeatzen duen Hazi fundazioko ordezkari batek osatu dute hiru finalistok hautatzeko epaimahaia. Hautaketa egiteko irizpidea, finalistok tokiko elikagaien industria ehunari egiten dioten ekarpena izan da. Hala, jasagarritasuna, aniztasuna, aldaera edo produktu autoktonoen sus-

tapena, ingurumenerako hobeak diren produktuen erabilera, hazkuntzako animalien ongizatea edota ingurumen arloko aberastasun soziala bezalako aldagaiak izan dituzte kontuan.

HIRU FINALISTA

Aldagai horiek aintzat hartuz egin dute Harakai, Arroyabe eta Gomiztegiren alde. Harakai kooperatibak 250 abeltzain eta artzain baino gehiago biltzen ditu. Baserrien bideragarritasun ekonomikoaren alde egiteaz gainera, abereen hazkuntza eta ongizatea hobetzeko programa iraunkorak ditu martxan.

Arroyabe, aldiz, kontserba enpresa bat da. Bermeon kokatuko enpresa honek mende luzea darama hegaluzea eskuz lantzen. Langintza tradizionalaren jakintzari eutsi badiote ere, hura gara-

tuz joan dira eta horren ikur dira MSC, Friend of the Sea eta Dolphin Safe ingurumen ziurtagiriak lortu izana.

Azken finalista Gomiztegi dugu, Idiazabal jatorri izeneko gaztak egiten dituen gaztagintza enpresa txikia. Artaldea Aizkorriko larreetan bazkatzen duten bitartean, artzaintza eta gaztagintza eskolak eskaintzen dituzte Arantzazuko santutegitik gertu dituzten instalazioetan, betiere artzainen betiko jakintzari eustea eta langintza hobetzea helburu. Ardi latxak gure kulturaren, gastronomian eta paisaian duen garrantziaren jakitun dira eta haren berri ematen ahalegintzen dira kontsumitzaileen artean.

Batis Otaegi Gomiztegi kooperatibako kideak pozik hartu du finalistaren artean egotea eta latxa arrazaren alde zein artzaintza sis-

Ezkerrean, 2008an Nikolas Segurola bere artaldearekin Arantzazuko Gomiztegi kooperatiban. Lerro hauen aldamenean, aldiz, Arroyabe kontserba enpresak Bermeoko Arrain Azokan jarritako postua. Andoni CANELLADA- Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS



tema tradizionalaren alde egin-dako ahaleginaren errekonozimendutzat jo du hiru postuetako bat eskuratu izana. Krisia zela-eta sortzen zuten produkzio guztia ezin saldu zeudela sortu zen Eroski kooperatibarekin lanean hasteko aukera. Hiru bat urte igaro dira ordutik, baina, gogora ekarri duenez, «negoziaketa jator eta harre-
ra oso on baten ostean ibilbide positiboa egin dugu elkarrekin».

Pozarren da Eroskik azken urteotan egin duen bidearekin eta, bost urtetik hona «sekulako alde» dagoela defendatu du: «Lehen produktu lokalek ez zuten leku gehiegi, orain, baina, gugana hurbiltzen ari dira. Egun, latxa arrazaren eta artzaintza sistema jatorren alde egindako lanaren erakustoki bihurtu dituzte merkataritza gune handiak eta hori eskertzekoa da».

Harakai kooperatibako Jose Pablo Larrearekin ere mintzatu da GAUR8. Pozik hartu du berak ere finalista izatearen berria, eta sariketan filosofia bera «ezin hobea» iruditu zaio. Zornotza eta Zestoa artean dagoen kooperatiba honek ingurumen aberastasuna eta enplegua sustatzen dituela ziur da. «Abeltzaintzarekin harreman estua duten 250 baserriarrei eskaintzen diegu lana, euren baserrien biziraupena bera

bermatuz. Horrek guztiak gure ingurunea bere horretan mantentzen laguntzen du, bai estetikoki eta baita ekosistema eta biodibertsitatearen ikuspegitik ere», gaineratu du. Baserriek zein nekazaritzarekin lotutako eremuek euskal tradizioak eta kultura mantentzeko duten garrantziaz ere ohartarazi nahi izan du.

Arroyabe enpresako Laura Ruiz de Azuak ere «pozarren eta gogo handiz» hartu du finalisten artean egotea. «Jendeak zure beharra baloratzen duela ikusteak hunkitu egiten zaitu. Beraz, oso gustura hartu dugu berria», onartu du. Hamarkada luzea darama dagoneko Arroyabek Eroskirekin lanean eta elkarren arteko harremana «oso ona» dela ziurtatu du Ruiz de Azuak.

Gomiztegi kooperatibako Batis Otaegi «pozik» dago finalista izatearekin, eta latxa arrazaren zein artzaintza tradizionalaren alde egindako ahaleginaren errekonozimendutzat du

Harakai kooperatibako Jose Pablo Larrearekin ere mintzatu da GAUR8. Pozik hartu du berak ere finalista izatea, eta abian jarritako sariketaren filosofia bera «ezin hobea» iruditu zaio

Tokiko ekonomia «ahalik eta gehien indartzea» da Eroskiren politika komertziala. Hala nabarmendu nahi izan du Asun Bastidak, Eroskiren tokiko produktuen zuzendari komertzialak. «Tokiko ekoizleen elikagaiak eta freskoak integratzen ditugu gure eredu komertzialean, gure ingurune elikagaien industria, ekonomia eta gizartea garatzeko», adierazi du. Estreintazear diren sariarekin, gainera, ekoizpena, langintza eta hazkuntza modu jasangarri eta osasungarriagoan egiten direla sustatu nahi dutela defendatu du.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 450 hornitzailearekin baino gehiagorekin ari da lanean Eroski kooperatiba, eta urtero, sektore horretako 10.000 produktu inguru merkaturatzen ditu 400 milioi eurotan erosita.

Orain ia urtebete, gainera, Eroskik eta Lakuak nekazaritzako elikagaien industria indartzeko xedez lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuten. Ordutik, beste hamaika egitasmoren artean, eskuz landutako arrantzaren aldeko konpromisoa indartu du Eroskik, Idiazabal jatorri izena sustatzeko hitzarmena sinatu du edota Eusko Label ziurtagiridun Arabako patataren komertzializazioa %10 handitu du.



SASOIKOA

IRAUNKORTASUNA

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan sarean arreta eragin duten gaietako batzuk:

> Tortura

2001eko irailaren 11ko atentatuaren ostean egindako atxilotuetan, CIAk atxilotuak torturatu izan ditu. Hala ageri da Ameriketako Estatu Batuetako Senatuko Inteligentzia Batzordeak berak egindako txosten batean. Aste honetan ezagutu den berriak hautsak harrotu ditu, noski. Gainera, legez kanpoko metodo horiek «eraginkorrak» ere ez zirela izan ondorioztatu du txostenak. Barack Obama herrialdeko presidentek tortura erabili izana deitoratu du, baina ez ditu praktikok ikertuko.

> Hiltzailea

Azken bederatzi urteotan 37 emakume hil dituela aitortu du 26 urteko gizon batek Brasilen. Emakume bat labankadaz hiltzea egotzita atxilotu eta ondoren aitortu ditu krimen horiek, baita beste hiru gizona eta 2 urteko ume bat hil dituela onartu ere, beti ere Poliziaren arabera. Rio de Janeirotik gertu dagoen Nova Iguaçu hirian atxilotu dute gizona. Agenteei aitortu zenez, lehen krimena 17 urterekin egin zuen; izandako «adrenalina igoeragatik» jarraitu zuen jendea hiltzen.

> Rouseff

Dilma Rouseff Brasilgo egungo presidentek diktadura garaian (1964-1985) torturak jasan zituela aitortu berri du jendaurrean. Orain bi urte diktadura garaiko giza eskubideen urraketak ikeretzeko eskaria egin zion Egia- ren Batzordeari, eta txostena jaso duenean eman du bere tortura testigantza berri. 60ko hamarkadaren amaieran, hiru urte eman zituen kartzelan, ezkerreko gerriltan borrokatzea leporatuta. Preso egon zen garaian, torturak jasan zituela salatu du.

> Google News

Datorren asteartean Googlek bere albiste zerbitzua, Google News, itxi egingo du Estatu espainolean indarrean sartuko den Jabetza Intelektualaren Legearen ondorioz. Urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean legea eta editoreen albisteak erakutsi edo erabiltzearen truke ordaindu egin beharko da. Hedabideek 10.000 milioi klik gehiago izaten dituzte hilean Google Newsi esker. Orain, baina, albiste zerbitzuak ez ditu Estatu espainoleko editoreen edukiak erakutsiko, ezta nazioarteko edizioetan ere.

> Lehoiak

Lehoien lur eremura salto egin ondoren, animaliek eraso eta larriki zauritu zuten gizon bat Bartzelonako zooan. Pasa den igandean gertatu zen eta zooko langileen, suhiltzaileen eta mossoen esku hartzea beharrezkoa izan zen gizona lehoiengandik askatzeko. Biktima 45 urteko gizona da eta militar jantzia zuen soinean lehoien eremura salto egin zuenean. Eszedentzian den Gelida hiri-ko polizia dela eta behin baino gehiagotan atxilotuta egon dela jakin da gerora.



KUTXATEKA.COM

SANTA LUZIA, BILTZEKO AITZAKIA

Abenduak 13, Santa Luzia, jostunen eguna. Garai batean jostun asko ziren, eta emakume taldeek hitzordua egiten zuten Santa Luzia egunez. Elkartu, zerbait jan, ondo pasa... Argazkia 1944. urtekoa da. Egun jostunak gutxiago dira, baina berdin-berdin elkartzen dira emakume kuadrillak toki askotan. Emakumeek lana alboan utzi eta denbora librean elkarrekin pasatzeko izan dituzten aukera gutxiak kontuan hartuta, egun seinatua izan da Santa Luziakoa. Eta izaten segi dezala. **Vicente MARTIN. FOTOCAR FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

Edurne Larraza Mendiluze
EHUko Informatika fakultateko irakaslea

Informatikaren irakaskuntza



Aste honetan «Computer Science Education Week» edo Informatikaren Irakaskuntza Astea ospatu da munduan barrena. Iaz 15 milioi ikaslek hartu zuten parte ordubetez programazio ikastaro bat jasoz. Horretarako Studio.code.org atarian ordubeteko ikastaroak aurki daitezke, baita hogeitau orduko ikastaro aurreratuagoak ere (bide batez, hauek euskaratzea gure esku dago!).

Aurtengo behin betiko datuak egun hauetan aterako dira eta tartean Euskal Herriko zenbait zentrotako ikasleak egongo dira.

Informatikaren irakaskuntzaren garrantziaz jabetzeko munduan zehar orokortzen ari diren zenbait gertaera ikusi besterik ez dago:

✖ Informatika irakasteko baliabideak barra-barra sortzen ari dira. Ikus, esate baterako, Zientzia.net atarian Igor Leturiak publikatutako «Informatikaren irakaskuntza» artikulua. Bertan azaltzen diren tresnak eskuragarri dauden guztien multzo txiki bat baino ez dira.

✖ Munduko prentsan, gero eta gehiago irakur daiteke ez dagoela jende nahikoa informatikan trebatua sortzen ari diren eta sortuko diren lanpostuak betetzeko, eta alderantziz gero eta jende gutxiagok aukeratzen dituela ikasketa hauek. Aurreko puntuan aipatutako artikuluan, adibidez, Igor Leturiak dio: «Zalantzarik gabe, horretan eragina duen faktoreetako bat da unibertsitate aurreko ikasketetan informatikako ikasgaietan ematen denak sortzen duen ideia okerra. Izan ere, orokorrean, erabilera da irakasten dena, eta ez ordenagailuen funtzionamendua, programazioa, eta abar».

✖ Europar Batasunak gaitasun digitalen esparrua zehaztu du, non tarteko mailatik aurrera oinarritzko programazioa jakin beharra dagoen.

✖ Lurralde askotan (esate baterako Frantzia, Finlandia, Estonia, Erresuma Batua) lehen eta bigarren hezkuntzako curriculumak moldatzen ari dira «programazioa» eta «algoritmoa» bezalako kontzeptuak irakasteko.

Curriculum horien artean, Erresuma Batuan landutakoa eskuragarri dago


Computingschool.org.uk atarian. Hemen argi desberdintzen dira tresna informatikoen erabilera («informazio-teknologiak» deritzotena), informazioaren erabilera segurua («alfabetatze digitala» deritzotena) eta informatikaren ezagutza.

Europa mailan joera nabarmena da eta ohartu beharra dago zergatik den garrantzitsua prozesu horren barruan egotea. Theguardian.com atarian 2012ko martxoaren 31n John Naughton irakasleak zioen umeei fisika, kimika, biologia eta historia irakasten diegun bezala, ordenagailuen funtzionamendua eta hauek osatzen dituzten sareak ere irakatsi behar dizkiegula. Izan ere, lehenengoak irakasten dizkiegu umeen eguneroko bizitzan gertatzen direnak ulertzea nahi dugulako eta arrazoi beragatik irakatsi beharko genizkieke bigarrenak. Gainera, programatu, arazoak ebazteko egiten da. Programa bat diseinatzeko duen pertsona batek garatu behar duen hori zatitan banatu eta ideiak antolatzen jakin behar du. Hori guztia matematikaren oinarrietan dagoen bezala, informatikaren oinarrian ere badago eta oso ona da edozein pertsonarentzat. Are gehiago, gaur egun dagoeneko edozein pertsona bali daiteke programazioaz, ez bakarrik informatikaria. Gaitasun

horren faltan, pertsonak mugatuta egongo dira eginga dagoena erabiltzera. Hau da, diseinatzaile batek nahikoa izango ote du besteek argazkiak tratatzeko programatutako filtroekin, edo filtro berriak sortu nahiko ditu? Kalkulu-orriak erabiltzen dituen idazkari edo kontu-emaile batek nahikoa izango ote du besteek programatutakoarekin, edo ondo etorriko al zaio script txiki bat programatzeko gai izatea bere beharrak hobeto asetzeko? Ez ahaztu informatika ez dela bakarrik telefono mugikorreko soinu pertsonalizatzea edo bertan aplikazioak instalatzea.

Gure ingurura begiratuz, ordea, Heziberri2020 curriculumaren lehen proposamena oso urruti dago helburu horietatik, gehienbat, informatika zientzia gisa tratatu beharrean, teknologia gisa tratatzen delako, beste-lako lanetan lagunduko duen tresna gisa. Horrela, analogia bat eginik, mailu hidraulikoa asmatzen irakatsi beharrean mailuaren erabilera baino ez zaie irakatsiko gure ondorengoei.

Garrantzitsua da umeei irakastea zein erabilgarria den inguratzen gaituzten makinen kontrola izatea eta hori ezin da utzi eskola zehatz batzuen nahien edo egite onaren esku. Zuzenean curriculumak hala behartu beharko luke. •



arkitektura / hezkuntza / teknologia

3 BEGIRADA:

mundu loreak

Mundu anitza

Horma-irudi zoragarri batean

(100 x 70 cm)

Samiarak



Palestinarrak



Inuitak



Sahararrak



Soilik
6 euro



Quebecarrak



Bost kontinenteetako
herriak eta kulturak
haurren bidez irudikatuak

Durangoko Azokan izandako
arrakastaren ondoren,
orain ohiko saltokietan, **GARA**rekin
larunbata 20 eta igandea 21

Olentzerotako ideia aparta!



Kikuyuak



Aborigenak

HARPIDEDUNENTZAT OHARRA: Produktu honen ezaugarriak direla eta, oso zaila eta garestia da etxera bidaltzea. Beraz, soilik kioskoan erosi ahal izango da adierazitako salneurrian (6€). Dena dela, harpidedunentzako prezio berezian eskura dezakezu (5€) Bilbo edo Donostiako buleguetara bila baldin bazatoz ordu tegi komertzialean. Ulertuko duzuelakoan, eskerrik asko.

